

EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO KIROL-  
KLUBETAN SEXU-JAZARPENA  
JASAN DUTEN PERTSONEK  
KIROL-JARDUERARI  
EMANDAKO ESANAHIEN  
ANALISI KUALITATIBOA

**Egileak**

Andrea Sáenz Olmedo, Oidui Usabiaga Arruabarrena, Aitor Iturricastillo Urteaga,  
Juan Aldaz Arregui, Uxue Fernandez Lasa, Estibaliz Romaratezabala Aldasoro,  
Nagore Martinez Merino, Cristina Granados Domínguez,  
Ruth Cayero Alcorta eta Javier Yanci Irigoyen.



## **KOORDINATZAILEAK**

Andrea Sáenz Olmedo

Aitor Iturricastillo Urteaga

Oidui Usabiaga Arruabarrena

## **EGILEAK**

Andrea Sáenz Olmedo

Aitor Iturricastillo Urteaga

Oidui Usabiaga Arruabarrena

Juan Aldaz Arregui

Ruth Cayero Alcorta

Uxue Fernandez Lasa

Cistina Granados Domínguez

Nagore Martinez Merino

Estibaliz Romaratezabala Aldasoro

Javier Yanci Irigoyen

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



## EGILEAK

### **Juan Aldaz Arregui**

Soziologian doktore eta lizentziaduna UPV/EHU, eta Programa eta Politika Publikoen Ebaluazioko Masterra MUKen. Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasle agregatua Kriminologiako Graduan. Kriminologiaren Euskal Institutuko (IVAC-KREI) GICCAS (Krimen Zientzietako Ikerketa Taldea) Ikerketa Talde Kontsolidatuko kidea eta LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

### **Ruth Cayero Alcorta**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakaslea.

### **Uxue Fernandez Lasa**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

### **Cristina Granados Domínguez**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle titularra. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. EN3S sareko (European Network for Studies in Sport Sciences) kidea.

### **Aitor Iturricastillo Urteaga**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea.

### **Nagore Martinez Merino**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Bilboko Hezkuntza Fakultateko (Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saila) irakasle ondokoa. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

### **Estibaliz Romaratezabala Aldasoro**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle agregatua. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea.

### **Andrea Sáenz Olmedo**

Lehen Hezkuntzako graduduna gorputz-hezkuntzaren aipamenarekin. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Masterra prestakuntza eta Kirol Entrenamenduetako aipamenarekin. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako doktoregaia Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU). Igeriketako entrenatzaile laguntzailea Espainiako Igeriketa Federazioan. Peritu judicial aditua jazarpenean, eskola-jazarpenean eta ziberjazarpenean Miguel de Cervantes Unibertsitate Europarrean.

### **Oidui Usabiaga Arruabarrena**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle agregatua. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. Ekintza Motorraren Behaketa Laborategiaren (EMBL) koordinatzailea. LGTBI, gorputz-hezkuntza eta kiroleko ikerketa-sareko kidea.

### **Javier Yanci Irigoyen**

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan doktorea. Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Hezkuntza eta Kirol Fakultateko (Heziketa Fisikoa eta Kirola Saila) irakasle titularra. GIKAFIT (*Gizartea, Kirola eta Ariketa Fisikoa Ikerkuntza Taldea*) Ikerkuntza Taldeko kidea. Portaera Motorreko Laborategiaren (PML) koordinatzailea.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA.....</b>	<b>9</b>
<b>2. GLOSARIOA.....</b>	<b>13</b>
2.1. GAKO HITZAK .....	13
2.2. JAZARPENAREN-ADIERAZPENAK .....	16
<b>3. AZTERLANAREN HELBURUAK.....</b>	<b>19</b>
<b>4. METODOLOGIA .....</b>	<b>20</b>
4.1. DISEINUA .....	20
4.2. PARTE-HARTZAILEAK.....	21
4.3. DATUAK BILTZEKO TEKNIKA.....	22
4.4. DATUEN AZTERKETA.....	22
<b>5. EMAITZAK.....</b>	<b>24</b>
5.1. MAIA.....	24
5.2. MAITANE.....	30
5.3. YÖDOG.....	34
5.4. HAIZEA.....	41
5.5. LUR .....	47
5.6. ANE.....	53
<b>6. AZKEN GOGOETAK .....</b>	<b>57</b>
6.1. SEXU-INDARKERIAREN ESPERIENTZIAREN AURREKO ETAPA.....	57
6.2. SEXU-INDARKERIAREN ETAPA.....	58
6.3. SEXU-INDARKERIAREN ONDORENGO ETAPA .....	59
6.4. KIROL-TESTUINGURUAN SEXU-INDARKERIAKO EGOERAK SAIHESTEKO GOMENDIOAK .....	60
<b>7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK .....</b>	<b>63</b>





## 1. SARRERA

Kirolaren eremuko sexu-jazarpenera nahi ez den edozein edozein sexu-portaera da, eta mota askotakoa izan daiteke; besteak beste, kontakturik gabeko ahozko sexu-jazarpenera edo bortxaketa izan daiteke (Hartill et al., 2021). Kirolaren arloko parte-hartzearen eta sexu-indarkeriaren arteko harremana ulertzea garrantzitsua da hura prebenitzeko. Berriki egindako zenbait ikerketatan aipatu dira kirolaren arloko sexu-indarkeriari lotutako arrisku- eta babes-faktoreak (Mountjoy & Verhagen, 2022; Sarwar, 2022).

Halaber, kirol-testuinguruan saiakerak egin dira sexu-abusuen larritasuna neurtzeko. Lehenengo ikerketetako bat Kirbyk eta Greavesek (1996) egin zuten. Kanadako goi-errendimenduko 266 kirolari erretiraturik elkarrizketa egin zieten, eta aurkitu zuten kirolarien % 9k sexu-harremanak izatera behartuta ikusi zutela euren burua, kirolaren eremuan autoritate-postua betetzen zuten norbaitekin. Ildo beretik, Bracknridge eta al.-ek (2005) Ingalaterrako Futbol Elkartearen jasotako 152 salaketa-kasuetatik 132 aztertu zituzten, 4 urteko tarte batean. Azterlanaren arabera, salaketen % 10,6 sexu-abusuak ziren, % 22,7 abusu fisikoak, % 15,2 abusu emozionalak eta % 3,8 zabarkeriak. Geroago, Rhind et al.-ek (2014), berriz, Erresuma Batuan ikerketa bat egin zuten, eta bertan honako hauei buruzko ehunekoak eman zituzten: abusu fisikoa (% 20,6), sexu-abusua (% 19), abusu emozionala (% 10,1) eta intimidazioa (% 10,1). Halaber, generoari buruzko datuak eman zituzten, eta ustezko erasotzaileen % 91 gizonezkoak ziren, eta, halaber, txostenen % 65ean biktima gizonezkoa zen. Herrialde berean, Hartill eta Lang-ek (2018) tokiko agintaritzari bidalitako eta kirolari eta aisiari lotutako 1.013 babeskopiari buruzko datuak jaso zituzten bost urteko tarte batean (2010-15). Salatutako pertsonaren (ustezko egilea) generoa 635 (% 63) salaketetan identifikatu zen. Horietatik, salaketen % 91n gizonezkoak ziren eta % 9an, berriz, emakumezkoak. Salatutako emakumezkoen % 73 eta gizonezkoen % 70 entrenatzaile edo irakasle rola zuten pertsona helduak ziren.

Hala ere, sexu-delituengatik salaketa-faltaren ondoriozko arazoak direla-eta, txosten ofizialak ez dira arazoaren larritasunaren adierazle fidagarriak (Murphy-Oikonen et al., 2020). Haurren abusuak kuantifikatzeko saiakera gehienek atzera begirako inkestak dituzte oinarri, helduak adinez txikikoak zirenean bizitakoa jasotzen dutenak. Kirolaren

arloan sexu-abusuak duen prebalentziari buruzko lehenengo ikerketetako bat Australian egin zen (Leahy et al., 2002). Bertan, ikertzaileek sexu-abusuaren legezko definizio bat erabili zuten eliteko eta aisialdiko mailako 370 kirolariri elkarrizketa egiteko eta kirolaren arloan izandako esperientziari buruz galdetzeko. Emakumezkoen % 31k eta gizonezkoen % 21ek sexu-abusuak jasan zituztela aurkitu zuten. Sexu-abusia jasan zuten emakumezkoen (% 41) eta gizonezkoen (% 29) kasuan, kirol-teknikari batek eragin zuela esan zuten.

Brackenridge aitzindaria izan zen kirolaren arloko abusua genero-ikuspegitik aztertzen, eta, batez ere, abusua jasan zuten emakumeen esperientziak hartu zituen ardatz (Brackenridge, 1994; Brackenridge & Fasting, 2005). Baliteke horren arrazoia izatea gaur egun gizartean sexu-abusuari eta -esplotazioari lotutako tasak nabarmenagoak zirela eta direla emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino (Borumandnia et al., 2020). Erlazio hori kirolean ere betetzen da. Hala ere, Hartill-ek (2009, 2014) argudiatu du salaketa-faltaren arazoa are muturrekoagoa dela gizonezkoen kasuan. Ildo horretatik, hogeitau urte baino gehiago igaro dira Carbaugh eta Plummer-ek (1995) ikusi zutenetik sexu-abusuen “bizirauleen” kasuak testuinguru desberdinetan gertatzen direla, hala nola kirolean edo lanean. Beharbada hori bereziki egia da kirolaren arloan, eta oraindik ere gutxi ikertu da gizonezkoen sexu-esplotazioa. Hala ere, azken urteotan Hartill-ek gizonezko “bizirauleak” elkarrizketatu ditu (Hartill, 2009, 2014); halaber, aurretik zenbait ikerketatan kirolaren eremuan sexu-abusuak jasan dituzten gizonezkoen testigantza autobiografikoak jaso dira (Sjoberg, 2011). Hartill-en (2014) esanetan, arrazoizkoa dirudi iradokitzea jakinarazi diren testigantza horien bitartez diskurtso publikoaren barruan espazioa ahalbidetu dela gizon gazteek haurtzaroko indarkeriari eta sexu-abusuei lotutako esperientziari buruz hitz egin dezaten.

Hala ere, herrialdeen arteko aldea esanguratsua da, eta herrialde askotan arreta gutxi eman zaio kirolaren eremuko sexu-abusuari, edo ez zaio inolako arretarik jarri (Fasting, 2015). Egile berak azpimarratzen du errealitate horiei arreta gutxi ematearen arrazoia izan daitekeela arazoa ukatzen dela eta frogetan oinarritutako ezagutzak falta direla. Gainera, gaur egunera arte, arlo horretako ikerketa gehienak diru-sarrerara altuak dituzten herrialdetan egin dira, eta atleten sexu-abusuetan jarri da fokua. Beraz, diru-sarrera

txikiak edo ertainak dituzten herrialdeetan sakonago aztertu behar da, bai eta beste tratatu txar batzuk ikertu ere (Gojanovic et al., 2021).



## 2. GLOSARIOA

Kapituluetan azaltzen den edukia errazago ulertzeko, kirolaren arloko sexu-jazarpenarekin eta sexuaren ziozko jazarpenarekin lotutako oinarritzko kontzeptuen definizioak ezagutaraztea komeni dela uste dugu. Definizio horiek literatura zientifikoan eta indarreko legeetan oinarrituta daude.

### 2.1. GAKO HITZAK

#### ✓ **Sexu-jazarpena**

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (EGBELO, BOE, 2007, 12. or.) ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, hau da sexu-jazarpena: «sexu-izaerako edozein portaera, ahozkoa, ahozkoa ez dena edo fisikoa, eta portaera horren jomuga den pertsonaren borondatearen aurkakoa, bere osotasun fisikoaren edo psikologikoaren aurka egiteko edo ondorio hori sortzeko xedearekin». Brackenridgeren arabera (1997), sexu-jazarpena ez dago sexu-diskriminaziotik bereizita, ezta sexu-abusua izan daitezkeen jazarpen-modu gogorragoetatik ere. Hori dela-eta, 3 etapa daudela esaten du:

Lehenengoak (sexu-diskriminazioa) deskribatzen du emakumeek gizonen baino soldata txikiagoak, erraztasun gutxiago eta baliabide tekniko txarragoak dituztela; bigarrenak (sexu-jazarpena) arreta jasotzea gogoz kontra, atletaren sexuan oinarritutako txisteak eta iruzkinak, dei eta mezu elektronikoko lizunak, eta abar deskribatzen ditu; eta, azkenik, hirugarren fasea dago, sexu-abusuarena, sexu-ekintza hertsatzaileak eta sexu-mesedearen truke lortutako pribilegioak eta sariak izaten dira.

#### ✓ **Jazarpen sexista edo sexuaren ziozko jazarpena**

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoak (EGBELO), ezartzen duen definizioa kontuan hartuta, hau da jazarpen sexista edo sexuaren ziozko jazarpena:

«Pertsona jakin baten sexua dela-eta, haren duintasunari erasotzea eta makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea xede duen portaera oro». (BOE, 2007, 12. or.)

✓ **Sexu-abusua**

Sexu-abusua baimena ematen ez zaion edo eman ezin zaion edozein sexu-jarduera da. Kirolean, atleta manipulatzea eta engainatzea izaten da (Suecia et al., 2008).

✓ **Eskola-jazarpena**

Olweus-en (1996), Sullivan et al.-en (2005) eta Cerezo (2009)-ren arabera, errepikatzen den luzaroko indarkeria mota bat da, biktimak ez duelako ezer esaten eta inguruko pertsonak jarrera pasiboa dutelako. Biktima bati zuzendutako mehatxuak eta/edo eraso fisikoak eta psikologikoak daude tartean, baita larderia eta isolamendu sistematikoa ere, gehienetan talde batek babesten dituen banakakoen eskutik.

✓ **Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena**

Sexu-orientazioan oinarritutako jazarpena eraso fisiko, psikologiko eta sozialen bidez egiten dena da. Ekintza horien barnean honako hauek sartzen dira, besteak beste: norbait alde batera uztea, baztertzea, irainak, laidoak, eraso fisikoak, eta abar jasotzea, baita hilketak gauzatzea edo suizidioa eragitea ere (Platero Méndez, 2007).

✓ **Genero-identitatean oinarritutako jazarpena**

Pertsona baten genero-adierazpenaren edo -identitatearen aitzakian, haren duintasunari eraso egitea, edo larderiazko edo etsaitasunezko giroa, giro apalesgarria, iraingarria edo baztertzailea sortzea helburu edo ondorio duen portaera edo jokabide oro. Adibidez, trans pertsona bati berak nahi duen bezala deitzeari uko egitea edo, espainieraz, bera identifikatzen den generoari ez dagozkion artikulua edo izenordainak nahita erabiltzea (Genero Berdintasunerako Unitatea, 2016).

✓ **Indarkeria**

Aldaz-en (2020) arabera, indarkeriaren kontzeptua mugatzea ez da erraza. Egilea indarkeriaren definizioa sakon aztertzen saiatzen da. OMEk (2002:5) honela definitzen du:

Indar fisikoa edo boterea nahita erabiltzea, mehatxu gisa edo benetan, norberaren aurka, beste pertsona baten aurka, edo talde baten aurka, lesioak, heriotza, kalte psikologikoak, garapenaren nahasmenduak edo gabetzeak eraginez, edo eragiteko aukera ugari sortuz.

Aldaz-ek (2020) zehaztu du definizio horren ikuspegia egiturazkoa dela funtsean, Galtung-ek (Matthews-en, 2017) adierazitakoaren arabera. Azken autore horrek, zueneko indarkeriaz gain, egiturazkoa eta kulturala hartzen ditu kontuan. Ildo horretatik, egiturazko indarkeriak indarkeria kulturala du oinarri, eta, horren arabera, kirol-errendimenduari lotutako karrerak bakoitzaren gaitasunaren eta esfortzuaren arabera da (Aldaz, 2020).

#### ✓ **Groominga**

*Groominga* tresna bat da, balizko abusatzaileek erabil dezaketena norbaitek (normalean, adingabe batek) haiekin konfiantza hartu dezan, eta, hala, abusuak gauzatu ahal izateko. Groomingak urteetan iraun dezake, eta gerta daiteke arretaren xede den pertsona ez ohartzea haien artean gero eta lotura sendoagoa sortzen ari dela. Azkenean, pertsona sare mental edo emozional moduko batean harrapatuta geratzen da, eta ez da gai sentitzen abusatzailearen sexu-desirak eta -nahikeriak betetzeari uko egiteko. Norbait sexu-abusurako erakartzeko eta/edo hertsatzeko, poliki-poliki eskuratu behar da haren konfiantza, sexu-harremanerako pertsona arteko hesiak sistematikoki apurtzeko gero. Prozesuak, hasiera batean, xalo samarra dela eman dezake; adibidez, kirolaria etxera eramateko edo beste pribilegio berezi batzuk emateko prest dagoen entrenatzailea. Era horretara prestatzen diren atleta gazteek obeditu behar horren gatibu direla senti dezakete; agintzen zaiena beteko dutela ziurtatzeko edo behartzeko, taldetik kanporatzeko mehatxuak egiten dira, edo pribilegioak eman edo ukatu (Bringer et al., 2001).

#### ✓ **Hasiberriarenak**

Hasiberriarenak armadan, ikasle-egoitzetan, kirol-taldeetan eta abarretan izaten diren ohiturazko jokabideak dira, taldekide berriak inimiziaz-ekintza sinbolikoak egitera behartzeko; kasu askotan, taldekideen ekintzak umiliagarriak edo iraingarriak eta konnotazio sexual argikoak izaten dira, eta taldean denbora gehiago eramateak ematen dien aginpidean oinarritzen dira (Azurmendi y Fontecha, 2015).

#### ✓ **Istripuzko indarkeria**

Kirolaren alorrean erabiltzen den terminoa, kirolean kiroleko indarkeriazko portaera berezkoak (ukabilkadak edo ostikoak borrokako kirolean, adibidez) eta berezkoak ez direnak (iniziazio-ekintzak edo sexu-jazarpena, adibidez) bereizteko (Brackenridge, 2002).

## 2.2. JAZARPENAREN-ADIERAZPENAK

(Brackenridge, 2002)-ren arabera hauek dira jazarpen motak:

### ✓ **Ziberjazarpena**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKTak) erabiltzea eskola-jazarpena egiteko, testu-mezuen, sare sozialen, telefono mugikorraren, argazkien, bideoen, eta abarren bidez.

### ✓ **Materiala erabiltzea**

Ondasunei kalte egin, hondatu edo baimenik gabe hartzea. Hauek ere izan daitezke: lapurretak, objektuak gordetzea, ondasun pertsonalen bat (objektuak edo dirua) ematera behartzea kalterik ez jasotzearen eta klubaren zentroetan lekuetara edo zerbitzuetara sartu ahal izatearen truke. Adibidez, igeriketa-materiala dagoen sarea ezkutatzea eta, harik eta askariko ogitartekorako dirua eman arte, ez itzultzeko mehatxua egitea.

### ✓ **Hitzezko indarkeria**

Biktimei min emateko hizkera erabiltzea, hauen bidez: irainak, gezurrak, gutxiesteak, asmo txarreko zurrumurruak edo iruzkinak, iruzkin diskriminatzaileak edo mespretxuzkoak (adibidez, ezaugarri fisikoengatik, kognitiboengatik, nazionalitatearengatik, sexu- edo genero-aniztasunarengatik, etab.), hitzezko abusuak, izen ona kaltetzea.

### ✓ **Indarkeria fisikoa**

Nahita egindako ekintza, pertsona baten osotasun fisikoa lesionatzeko, tartean, kolpeak, ostikoak, zangotrabak, zimikoak, bultzakadak, ile-tiratzeak, giltzapetzeak, sarrarazteak, eta abar.

### ✓ **Indarkeria psikologikoa**



Hitzez egin daiteke: irainak, gezurrak, isekak eta xantaiak, baita ezizenak, asmo txarreko zurrumurruak, goitzenak, umiliazioak eta irainak, eta gizarte-bazterketa ere.

✓ **Sexu-indarkeria**

Sexu-educiko iruzkinak, intsinuazioak eta mehatxuak edo indarreko sexu-delituez eta/edo sexu-jazarpenari buruzko araudian tipifikatuez bestelako sexu-exhibizio esplizitua.



### 3. AZTERLANAREN HELBURUAK

Indarkeriaren “bizirauleei” buruzko ikerketa gutxi egin dira, bereziki ikerketak testuinguru nazional eta kultural desberdinak barne hartzen dituelako. Beraz, ikerketaren xedea izan zen adinez txikiak zirenean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) egindako kirolaren eremuan helduen sexu-indarkeriari lotutako esperientzien berri izatea eta ulertzea. Horretarako, helburu espezifiko hauek proposatzen ditugu:

- Kirol-eremuan sexu-jazarpena bizi aurretik kirolaren jarduera fisikoari lotutako esperientziak ezagutzea eta ulertzea.
- Kirolaren eremuan bizitako sexu-jazarpenaren prozesuaren ezaugarriak ezagutzea eta ulertzea; horretarako, tokiak, “grooming” delakoa, jazarlearen ezaugarriak eta kirolean duen eragina sakon aztertuko ditugu.
- Kirol-eremuan sexu-jazarpena bizi izan ondoren kirolaren jarduera fisikoari lotutako esperientziak ezagutzea eta ulertzea.
- Jasandako sexu-jazarpenaren berri emateko prozesua ezagutzea eta ulertzea; inguruaren erantzuna, egoera gaitzeko emandako pausuak eta biktimek emandako gomendioak, sexu-jazarpeneko egoerak prebenitzeko edo ekiditeko.

## 4. METODOLOGIA

### 4.1. DISEINUA

Sexu-indarkeriari lotutako ikerketa enpirikoak erronka metodologiko eta etiko ugari aurre egin behar die; bereziki, sexu-indarkeria bizi izan duten biktimekiko sarbidea bermatzea. Sexu-indarkeria bizi izan duten pertsonen arrazoi ugari dituzte gai horri buruzko azterlan batean parte ez hartzeko. Gai horren inguruko ikerketak oso kontuzkoak dira, eta prozedura hertsia eta protokolo etikoen menpe egon behar dute (Brackenridge, 1999; Hartill, 2014; Rulofs, 2016).

Holloway eta Freshwater-en (2007) arabera, pertsona zaurgarriek askotan galdetegietan edo erdiegituratutako elkarrizketetan esplotatuta egoteko arriskua dute; izan ere, euren ahotsa ez da nagusitzen eta pentsamenduak eta identitatea alda daitezke. Horregatik, ikerketa narratiboak ahalduzko boterea dauka, zaurgarritasunaren mugetatik haratago ikusteko, eta, nolabait, bakoitzak bere burua eta kontrola berreskuratzeko. Ikerketan erabilitako metodologiaren ezaugarri garrantzitsu bat izan zen parte-hartzaile bakoitzak bere bizipenak kontatu zituela, nahi zituzten hitzak eta beren hizkera erabilia (informazio gehiago nahi izanez gero, azterlan hauetara jo daiteke: Brackenridge & Fasting, 2005; Hartill, 2014; Rulofs, 2016).

Kirolaren eremuan sexu-indarkeria aztertzeko elkarrizketa metodo kualitatiboak erabiltzen dituzten ikerketetan baieztapen orokortuak erabili ohi dira lagin osoan. Hortaz, eragindakoen banakako ahotsak askotan pasibotasunera mugatuta daude, eta banakako kasuak eta euren egitura narratiboa bigarren planoan gelditzen dira (Fasting & Sand, 2015). Azken urteotan egindako azterlan bakan batzuek soilik (Brackenridge & Fasting, 2005; Fasting & Sand, 2015; Hartill, 2014; Owton & Sparkes, 2017; Rulofs, 2016) garatu dituzte kasu-azterketak eta txostenak eragindakoek esandakotik abiatuta; hala ere, metodologia hori erabilgarritzat jo izan da, sexu-indarkeriaren bilakaera eta atzea irudikatu nahi denean. Banakako biktimaren narratibaren arreta jartzen duen metodologia hori sexu-indarkeriaren aintzatespenean aurrerapausotzat har daiteke; izan ere,

lehentasuna ematen dio aldez aurretik (askotan) isilarazi duten parte-hartzailearen ahotsaren garrantziari (Fasting & Sand, 2015).

#### 4.2. PARTE-HARTZAILEAK

Azterlan honetako parte-hartzaileak berariazko laginketaren bidez hautatu ziren, honako irizpide hauen arabera: 1) EAEn bizi den heldua. 2) EAEn adingabea izanda kirolaren eremuan sexu-abusua jasandakoa.

Lagina eskuratzeko, harreman instituzionala sortu zen Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzarekin ; zehazki, kirolaren eremuan sexu-jazarpen eta -abusu eta sexuan oinarritutako jazarpen-kasuetarako informazio- eta arreta-zerbitzu espezializatuarekin. Ildo horretatik, lehenengo elkarrizketatuarekin aipatutako erakundearen bidez jarri ginen harremanetan. Jarraian, elurrezko bolaren teknika erabilita, hurrengo bost parte-hartzaileekin jarri ginen harremanetan.

##### 1. taula. Parte-hartzaileen datuak

Kop.	Adina	Generoa	Probintzia	JF mota	JFaren ezaugarriak
P1	25	Emakumea	Araba	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua
P2	26	Emakumea	Araba	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua
P3	51	Gizona	Bizkaia	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua
P4	28	Emakumea	Bizkaia	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua
P5	33	Emakumea	Bizkaia	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua
P6	25	Emakumea	Gipuzkoa	Duelu kolektiboa	Lehia, federatua

Oharra.

JF mota: a) artistikoak (jarduera artistikoak); b) Natura (naturan egiten diren jarduerak); c) banakakoak (banakako jarduera); d) kooperatiboak (jarduera kooperatiboak); e) banakako dueluak (pertsonek beste baten aurka); eta f) duelu kolektiboak (talde bat beste baten aurka).

JFaren ezaugarriak: a) ez lehiakorra, autogestionatua; b) ez lehiakorra, antolatuta; c) lehiakorra, ez federatua; eta d) lehiakorra, federatua.

1. taulan ikus daitekeenez, lagina 6 lagun helduk osatu zuten (gizonezko bat eta bost emakumezko), adingabeak zirenean EAEn egindako kirolean sexu-indarkeriaren biktimak izandakoak.

### **4.3. DATUAK BILTZEKO TEKNIKA**

Datuak biltzeko, sakoneko elkarrizketa erdiegituratu erabili zen. Ikertaldeak elkarrizketa egiteko eguna eta ordua adostu zituen azterlanean parte hartzeko prest zeuden pertsonekin. Elkarrizketa guztiak pertsonalki eta banaka egin ziren, 2023ko urria eta azaroa bitartean. Elkarrizketak hasi aurretik, azterlanaren ezaugarri nagusiei buruzko informazioa eman zitzaien azterlaneko parte-hartzaileei, eta baimen-agiri bat sinatu zuten. Elkarrizketatuei konfidentziasuna, anonimotasuna, identitatearen babesa eta boluntariorotasuna bermatu zitzaizkien. Bereziki, ikerketaren borondatezko izaera azpimarratu zen, bai eta elkarrizketa edozein momentutan ondorio negatiborik gabe ukatzeko edo bertan behera uzteko aukera ere.

Elkarrizketen gidoia malgua da eta hainbat zati ditu: 1) kirol-jarduera fisikoa (KJF) haurtzaroan (3-12 urte), gaztaroan (13-18 urte) eta helduaroan (18 urtetik aurrera eta gaur egunera arte); 2) entrenatzaileen ezaugarriak (lidergo-estiloak, batez ere), taldekideak eta klubeko gainerako kideak (pertsona arteko harremanak). 3) kirolaren arloan antzemandako eta bizitako indarkeria; 4) adinez txikia zenean kirolean jasandako sexu-abusuaren/-jazarpenaren ezaugarriak; 5) jasandako sexu-abusua/-jazarpena jakinaraztea eta gainditzeko prozesua; eta 6) sexu-abusua/-jazarpena prebenitzeko eta gainditzeko gomendioak.

### **4.4. DATUEN AZTERKETA**

Elkarrizketak egin ondoren, eduki inductiboaren analisisa egin zen, gai emergenteen taldeak identifikatzeko (Sparks & Smith, 2014). Prozesu inductiboa bukatu ondoren, bigarren fase deduktibo batean, elkarrizketaren gidoian ezarritako kategoria desberdinak kontuan hartu ziren. Azterlan honetarako sortutako kategoria-sistema aintzat hartuta, estrategia errealista batetik abiatuta narratibak idazten hasi ziren, elkarrizketatutako pertsonen ahotsari garrantzia emateko. Kategoria horietaz gain, denboraren ardatza kontakizunei zentzua emateko abiapuntua izan zen; hortaz, parte-hartzaile bakoitzeko bizitzako hiru aldi hauetako bizipenak desberdindu ziren: 1) sexu-abusua/-jazarpena jasan aurretik; 2) sexu-abusuaren/-jazarpenaren prozesua; eta 3) sexu-abusua/-jazarpena jasan ondoren.

Analisi narratiboa egiteko eta parte-hartzaile bakoitzaren kontakizuna osatzeko irizpideak ezartzeko prestatu genuen kategoria-sistema 2. taulan ikus daiteke.

**2. taula** Dimentsioen, kategorien eta azpikategorien sistema.

Dimentsioak	Kategoriak	Azpikategoriak
Sexu-abusuaren/- jazarpenaren aurreko etapa	KJFren esperientziak	KJFren hastapena
		KJFren ezaugarriak
	Entrenatzaileekiko harremanak	Entrenatzaileen lidergo-estiloak
		Pertsonen arteko harremanak
	Berdinen arteko harremanak	Pertsonen arteko harremanak
Sexu-abusuaren/- jazarpenaren etapa	KJFren esperientziak	KJFren ezaugarriak
	Abusuaren/jazarpenaren karakterizazioa	<i>Grooming</i>
		Tokiak
		Jazarlearen ezaugarriak
		KJFn duen eragina
Sexu-abusuaren/- jazarpenaren ondorengo etapa	Abusuaren/jazarpenaren jakinarazpena	Komunikazio-prozesua
		Testuinguruko agente desberdinen erreakzioa
	Abusua/jazarpenera gainditzea	Gainditzeko prozesua
		Ahalduntzea
	Abusua/jazarpenera ekiditeko gomendioak	Jazarpen-portaerak identifikatzea
	Prebenitzeko eta sentsibilizatzeko estrategiak	
	KJFren esperientziak	KJFren ezaugarriak

## 5. EMAITZAK

### 5.1. MAIA

#### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Maia naiz, 26 urte ditut eta Araban bizi naiz. 8 urte inguru nituela kirola egiten hasi nintzen. Zorionez, gurasoek kirol desberdinak probatzera eraman ninduten, denak probatu eta aurrerago aukeratu ahal izateko. Eskolan mota askotako jarduerak egiten genituen eskola-orduetatik kanpo. Kirola egiten hasi nintzeneko oso oroitzapen atseginak ditut. Kirol ugari probatu banituen ere, saskibaloia aukeratu nuen. Erabakia hartu nuenean oso gaztea nintzen; ez dakit benetan gustuko nuelako edo lagunek hala erabaki zutelako eta ikaskide guztiekin egon nahi nuelako aukeratu nuen.

Saskibaloia eskola-orduetatik kanpo egiten banuen ere, ikastolak eskaintzen zuen. Astean bitan entrenatzen ginen, eta gero asteburuan, partida. Lehen Hezkuntzan egon bitartean, taldekide berak izan nituen, gutxi gorabehera. Garai hartan, Saskibaloiko Arabako Federaziotik deitu zidaten, teknifikazio-saio batzuetan parte hartzeko; hortaz, igande batzuetan talde horrekin entrenatzen nintzen. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara pasatzean, urtebete eman nuen institutuko taldean. Aurrerago, nire lagun batekin batera saskibaloit-talde batean jokatzeko deitu zidaten. Nire lagunak saskibaloia utzi zuen, eta, hortaz, ez zen talde berrira joan. Nik oso argi neukan jarraitu nahi nuela, eta hori egin nuen. Federazioaren teknifikazio-saioetan egon ziren jokalarien zerrendari jarraitzen ziotela esango nuke; Edo, beharbada, gure mailagatik izan zen. Klub horretara iritsi nintzenean, talde batean sartu ninduten eta urte asko eman nituen bertan, junior kategoriako lehen urtera iritsi arte. Batzuetan taldekide berriak iristen ziren, baina ez zegoen aldaketa handirik. Exijentzia-mailak gora egin zuen gainerako taldeetan eskatzen zidatenarekin alderatuta, eta hori gustuko nuen. Urte horietan nire jokoaren maila hobetzen jarraitu nahi nuen. Gainera, goragoko mailetan, euskal ligetan, eta abarretan jokatzen hasi ginen, eta lehia handiagoa zen. Beste entrenamendu-saio bat gehitu genuen; hirutan biltzen ginen astean, gehi partida.

Saskibaloian hasi nintzenetik entrenatzaile ugari izan ditut. Beti izan dira gizonezkoak. Bakoitzak bere entrenatzeko modua zeukan, erabat desberdina. Gehienak oso



zuzentzaileak ziren; une oro zer eta nola egin behar genuen agintzen ziguten. Oso desberdinak ziren. Hala ere, eskolako entrenatzaileak (Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan izan genituenak) eta saskibaloiko klubetako entrenatzaileak argi eta garbi bereiziko nituzke. Lehenengoak ez ziren hain zuzentzaileak; helburua ondo pasatzea zen, ez ziren oso exigenteak, eta ez ziren hain trebeak. Bestalde, klubetako entrenatzaileak zuzentzaileak, diziplinatuak eta exigenteak ziren, eta entrenamenduan eta saskibaloiko txapelketetan adituak ziren. Guk hori bagenekien, eta askotan haietako bakoitzaren jarreran edo entrenatzeko moduaren aurrean zer egin genezaken komentatzen genuen. Batez ere saskibaloiko klubetako entrenatzaileen kasuan, entrenatzaile bakoitzaren estilora egokitu behar ginelako. Nik exigentzia nuen gustuko, norbait nire gainean egotea, etengabe motibatzea; hortaz, klubetako entrenatzaileak nituen gustuko. Asko erakutsi ziguten. Nire maila, gaur egun, haiei esker lortu dudala esango nuke. Aitzitik, entrenatzaile anarkikoak, zer egin behar genuen zehazten ez zutenak, ez nituen gustuko. Garai hartan ez nuen planteatu ere egin jokalariek entrenatzailearekin baterako erabakiak hartzeko aukera zegoenik. Haien erabaki behar zutela uste nuen. Eta hori gertatzen zen: entrenatzaileek erabakiak hartzen zituzten, eta erabakiak betetzen genituenok ondo genbiltzan. Arazoa entrenatzaileen “aginduak” errespetatzen ez zituztenekin sortzen zen; izan ere, errieta egiten zieten.

Orokorrean, jokalarien arteko giroa atsegina zen. Baina, kasu honetan, eskolako taldeetan eta klubeko taldeetan sortzen zen giroaren arteko aldea azpimarratuko nuke. Eskolako taldeetan giroa oso inklusiboa zen, eta denok neurri berean parte hartzen genuen. Aitzitik, klubetako giroa ez zen hain atsegina, lehia agerikoa baitzen. Taldearen mailak gora egin hala, lehiak gora egiten zuen, bereziki junior- eta estatu-mailako kategorietan. Azken talde horietan zure titulartasuna jokoan zegoen, eta zure postu espezifiko beste kirolari batzuekin lehiatu behar zinen. Halaber, batzuen ustez kutunkeria zegoen kasu batzuetan, entrenatzaileen aldetik. Harremanak konplikatuagoak ziren lehia-giro horretan.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

Kadete- eta junior-kategorietan batez ere saskibaloian aritu nintzen; ez nuen bestelako kirolik egiten. Junior kategoriako lehen urtean, bigarrenera pasatu aurretik, esan ziguten

taldea desagertuko zela, baina ez ziguten gehiegi azaldu. Batzuek saskibaloia utzi zuten, beste batzuk beste talde batera joan ziren, eta beste batzuen kasuan, ni barne, estatu-mailan jokatzeko zuten senior-taldean sartu gintuzten. Hortaz, 17 urterekin kategorian horretan hasi nintzen, egokitzen zitzaidana ez bazen ere. Esperientzia ez nuen gustuko, entrenatzailearen tratua ez nuelako gustuko. Hurrengo kategoriara sartu ginen guztiok batera utzi genuen taldea.

Urte horietan, sexu-jazarpeneko bi egoera bizi izan nituen. Lehenengoa jokalaria nintzenean, eta bigarrena entrenatzailea nintzenean. Lehenengoa kadete-etapan gertatu zen, entrenatzaile baten eskutik. Kadetea nintzenean, nirea ez zen entrenatzaile batekin harreman oso ona izan nuen; udako campus batzuetan nire entrenatzailea izan bazen ere, urte bat gehiago zuten jokalarien entrenatzailea zen. Ongi moldatzen ginenez, tratua berezia jasotzen nuen. Adibidez, behin txokolatea ekarri zidan entrenamendura. Hortik gutxira, WhatsApp bidez elkarri idazten genion. Nik gustuko nuen. Garai hartan 14 urte nituen, eta berak 10 urte gehiago. Asko hitz egiten genuen, eta WhatsApp bidezko harremana oso erraza zen. Gogoan dut une jakin batean neure argazki bat bidaltzeko eskatu zidala, biluzik ageri nintzeneko bat. Baina ez zidan zuzenean eskatu. Leunki eskatzen zuten. Adibidez, behin elkarrizketa bukatu behar genuela esan nion, dutxatu egin behar nintzelako, eta berak esan zidan: "A, ba bidali argazki bat". Dutxatzera joan behar nintzela esan nionean, ez nuen bestelako asmorik; naturaltasun osoz egin nuen. Neskato bat nintzen, eta ez nuen ikusten entrenatzaile horrek interpreta zezakeena. Ez nion inoiz nire argazkirik bidali, baina ez zitzaidan oso arraroa irudituko bidali izan banio. Sexu-jazarpeneko egoera horren puntu gorena entrenatzaileen eta jokalarien arteko afarietako batean nabaritu nuen. Festaren batera joaten ginenean, klubeko entrenatzaile guztiak gurekin batera etortzen ziren. Ez genituen zuzenean gonbidatzen, baina ohitura zen denak etortzea. Egun horretan denak etorri ziren, bera barne. Diskotekatik irtetean konturatu nintzen jake barruan utzi nuela eta berriro barrura joan behar nuela esan nuen. Berak nirekin sartuko zela esan zidan. Eskutik heldu eta barrura sartu ginen. Atera ginenean ez zegoen inor; nire lagunak eta gainerako entrenatzaileek alde egin zuten. Gainerakoak bilatzera joan ginen, bere lagun batzuekin egin genuen topo eta haiekin gelditu zen, baina nik nire lagunak bilatu nahi nituen. Oso berandu zen, eta etxera bueltatzeko ordua errespetatu behar nuenez, alde egin behar

nuela esan nion. Berak “a, bale, bale” esan zidan. Alde egin nuenean, entrenatzaile horrek WhatsAppetik mezu bat bidali zidan: “Nirekin lo egiteko aukera galdu duzu”. Nire lagun batzuek bazekiten, kontatzen nielako; guretzat ez zen txarra, mutil bat gustuko nuelako, eta harekin hitz egiten nuelako. Ez dakit berak ezkututzen zuen. Ziur nago ez nintzela bakarra izan; taldekide batzuk beste entrenatzaile batzuekin ibiltzen ziren eta amodio-kontuak izaten zituzten. Jokalari guztiak adingabeak ginen. Eguneroko egoera zen, arrunta. Nerabea zarenean ez diezu gurasoei kontatzen norekin ibiltzen zaren. Bigarren jazarpen-egoera antzekoa izan zen, eta hau ere junior izanda gertatu zen, talde bateko entrenatzailea nintzenean. Jazarlea taldeko beste entrenatzailea zen.

Portaera bortitz hauek, bereziki, kantxatik kanpo gertatu dira, bakarrik nengoenean. Egora horietako bat WhatsAppeko mezuena da. Gainera, ni ez nintzen mezu horiek jasotzen zituen jokalari bakarra; ohikoa dela esango nuke. Hala ere, egoera hori gertatzeko testuinguru aproposena jai- edo afari-giroa zen, gure 25 urteko entrenatzaileekin geundenean. Askotan tragoak ordaintzen zizkiguten, eta guk, haurrak izanda, onartu egiten genituen. Uste dut une haietan oso ahulak ginela. Aurretik esan bezala, esperientzia gogorrenetako bat jai-giro horretan bizi izan nuen. Aipatutako bi egoera edo inguru horiez gaiz, gogoan daukat aldageletan sexu-jazarpena gertatzen zela. Adibidez, gogoan daukat dutxetan geundela entrenatzaile bat sartu egiten zela, eta honako hau esaten zigun: “aizue, neskak, bukatu behar duzue”. Garai hartan txantxetan komentatzen genuen, ea zenbatetan ikusi gintuen biluzik. “A, biluzik nengoen sartu denean” eta “biluzik nengoela ikusi du” komentatzen genuen, besteak beste. Hori talde askotan gertatzen zen, eta beste entrenatzaile batzuekin.

Nire kasuan, jazarleak beti 25 urte inguruko entrenatzaileak izan dira. Garai hartan 14 eta 17 urte bitarteko gazteak ginen, eta nolabaiteko konplizitate afektiboa bilatzen zuten. Pixkanaka-pixkanaka guregana hurbiltzen ziren, batez ere sare sozialak erabiliz, edo bakarrik geundenean; gainerakoek zer esaten genuen ikusi ezin zutenean. Konfiantza lortzeko neska gazteak liluratzeko esaldiak botatzen zituzten, 25 urteko entrenatzaile batekin maite-jolasean ibiltzea erakargarria baitzen. Eta sare sozialen bidez iruzkinen tonuak gora egiten zuen; adibidez, biluzi eta argazkiak bidaltzeko eskatzen ziguten, edo

zuzenean, bestelako sexu-ekintzak eskatzen zizkiguten, hala nola haiekin ohera joatea. Argi daukat momentu hartan oso ondo zekitela zertan ari ziren.

Sexu-indarkeriari lotutako bi gertakari horiek bizi ondoren ez dut saskibaloia utzi. Zorionez, bi kasu hauetan okerrera egin aurretik gelditu nituen.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Adinez nagusia izan naizen arte ez dut inorekin hitz egin gertatutakoari buruz. Oraingo klubean sartu nintzenean kontatzeko erabakia hartu nuen. Ziurrenik, horri buruz askotan hitz egiten dugulako. Esperientziak partekatzen ari ginela, nire esperientzia kontatzera ausartu nintzen. Ez zitzaidan asko kostatu, taldeko jokalariek guztiek bizi izan genuelako. Antzeko egoerak bizi izan ditugu, eta gure artean partekatzea errazagoa da. Helduak gara, eta adinez txikikoak diren beste jokalariek batzuek oraindik ere egoera hori bizi dutela ikusteak gaia gehiago partekatzera eramaten gintuen. Oso naturala izan zen.

Nire kasua, eta ezagutzen ditudan kasu gehienak, asko badira ere, inoiz ez dira ezagutarazi. Hortaz, inoiz ez dut ikusi nola erantzun duten kirolaren eta familiaren eremuan dauden pertsonak. Hala ere, esango nuke talde teknikoak zein gainerako entrenatzaileek bazekitela zer gertatzen zitzaien. Hots, entrenatzaileek bazuten abusuzko praktika horien berri. Ez dut esan nahi hori zela entrenatzaile guztien kasuan, baina bazekiten eta babesten zuten, edo, behintzat, ez zuten ezer egiten egoera gelditzeko. Hori argi daukat; klubean normalizatutako jarrera da. Nire ustez, klub horretan eta beste klub batzuetan ere, talde teknikoek ez dute behar bezala jokatzeko, zer gertatzen den badakiten arren. Asumitu egiten dutela dirudi. Normalean gertatzen den zerbait da. Gainera, entrenatzailea arrakastatsua bada... ahaztu; erabiltzen duen metodoa "egokia" da, eta gainerakoa bost axola. Gurasoen kasuan, esango nuke ez zutela horren berri. Biktimek beraiek ez dute nahi gurasoek jakitea nola limurtzen dituzten.

Nire ustez, bere garaian ez nintzen jakitun izan. 14 urte nituenean ez nuen indarkeriatzat hartu; ona balitz bezala, ilusioz bizi izan nuen. Baina orain badakit gaizki dagoela, eta eskerrak ez zela besterik gertatu; hala izatekotan, orain askoz okerrago pasatuko nukeela

uste baitut. Sexu-jazarpenari lotutako bi esperientzia hauek gainditu ditudala uste dut. Hala ere, egungo taldean integratzea eta partekatzea oso lagungarria iruditu zait. Jazarpena gainditzea errazagoa da ondoan egoera bera bizi duten pertsonak dituzunean. Hala ere, gertatutakoak aldaketak eragin ditu nire bizitzan. Orain goitik bera ebaluatzen ditut entrenatzaileak eta jarrera desegokiak antzematen ditut; hortaz, taldekideok gauza asko ez ditugu onartzen. Duela gutxi entrenatzaile bat kaleratu dugu, egiten zituen iruzkinengatik: “jo, ez nekien neskek hirukoa botatzen zenutenik; ez nekien borrokatzen zinetenik edo indartsuak zinetenik...” edo gutako batzuk zinemara edo kanpoko beste jarduera batzuk egitera gonbidatzeko asmoa zuelako. Nahiago dugu entrenatzaileak ez izatea, antzeko egoera bizi behar izatea baino. Gainera, jokalarietako batek taldea utzi baino lehen, entrenatzailea kaleratu genuen. Gaur egun arretaz aztertzen ditugu bizi izan ditugun jarrera horiek. Gainera, beste saskibaloia-klub eta -talde batzuk kontzientziatzen eta sentsibilizatzen saiatu gara, adingabeko jokalariai guk bizi izandako egoera bizi ez dezaten.

Badakit ohikoa dela entzutea kirolean jokalarien eta entrenatzaileen arteko harremana desberdina dela. Jokalariai motibatzeke, taldea kohesionatzeko eta sortzeko dela esan ohi da, baina inork ez du aipatzen komentatu ditugun egoerak sor daitezkeela, eta mota askotako indarkeria gerta daiteke, sarri ikusteko zaila bada ere. Ni, oraintsu arte, ez naiz konturatu neuk edo nire taldekideek jasan ditugun indarkeriazko egoera askoz. Duela gutxi, oso autoritarioa zen entrenatzaile batek taldekide bat astindu zuen, gainerakoei oihukatu eta arbela apurtu zuen publikoaren aurrean, gure gurasoak bertan zeudela. Ez dakit, jarrera agresiboak dira, kasu horretan mundu guztiaren aurrean; hala ere, jokalariai motibatzeke jarreratzat hartzen zen, kantxan izandako jarrera txarrak eraginda. Imajinatu zer gerta daitekeen publikorik ez dagoenean, edo, are okerrago, zu bakarrik zaudenean. Ez da normala klubeko entrenatzaileak adingabeekin ateratzea eta tragoak ordaintzea. Ez da normala entrenatzailea aldagelara sartzea jokalariai dutxan daudenean. Hala ere, egunerokoan ikusten dugu saskibaloia-eremuan. Zaila da hori aldatzea, baina ikusgarri bihurtu behar ditugu jarrera, egoera bortitz eta desegoki horiek, desagerrarazi ahal izateko. Nire esperientzia kontuan hartuta, antzeko egoeraren bat bizi izan duen jendea horren berri ematera animatzen dut, betiere prest dagoenean. Okerrena da helduak garenean konturatzen garela, baina uste dut une horretan bilatu

behar dela erreferente bat hitz egin ahal izateko. Kirolean jende zintzoa dago, jende asko, eta laguntzeko prest.

Gaur egun, saskibaloian jarraitzen dut, hori da gustatzen zaidana. 18 urte bete nituenean, senior-kategoriako lehenengo urtean, beste klub batera joan nintzen. Nire lagunak lehenago alde egin zuten, eta haiekin joatea erabaki nuen. Urtebete eman nuen klub horretan, baina ez zitzaidan gustatu. Esan zidaten eskualdeko senior-taldera joango nintzela, eta berdin zitzaidan, jokatu eta disfrutatu nahi nuelako. Baina estatuko senior-taldean sartu ninduten. Talde horretan sartu baninduten, horretarako maila neukala uste zutelako zela susmatzen nuen. Baina entrenatzailea ez zegoen ados. Urte horretan ez nuen behin ere jokatu, eta hori zenez nire helburua, klubetik atera eta nire egungo taldera joan nintzen, duela sei edo zazpi urte. Oso pozik nago. Arabako eskualdeko lehenengo mailako emakumezkoen senior-taldea da, oso lagunak gara eta gure artean zuzentzen dugu. Aldaketa hori ez nuen egin kirol-asmoengatik, baizik eta niri saskibaloian jokatzeko gustatzen zaidalako, berdin zaidalako lehen mailan, bigarren mailan edo beste maila batean jokatzeko dudak. Gaur egun, gehien gustatzen zaidan entrenatzailea gidatzen zaituena da, gauzak argi dituen eta kirolarien iritzia kontuan hartzen duena. Entrenatzaile horrek badaki helburu komun bat dugula xede. Aldi berean, exigentea izatea gustatzen zait, baina horrek ez du esan nahi etengabe errieta egiten eta oihuka ibili behar duenik. Exigentziaren azken hitzak kirolariarena izan beharko luke.

## **5.2. MAITANE**

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Maitane naiz, 25 urte ditut eta Araban bizi naiz. Zazpi urte nituela kirola egiten hasi nintzen. Beti oso aktiboa izan naiz. Gainera, nire familiarekin beti mendira joaten nintzen, eta bizikletarekin ateratzen ginen. Eskolan, berriz, eskola-orduetatik kanpo kirol-jarduerak antolatzen ziren. Garai hartan aukeratzeko gutxi zegoen. Gaur egun eskaintza zabalagoa da, baina garai hartan a, b edo c aukeratu behar genuen. Hala ere, kirol desberdinak probatu nituen, hala nola igeriketa, futbola (ez zitzaidan batere gustatu) edo zaldiketa. Azkenean, nire ikaskideekin batera, saskibaloia aukeratu nuen.

Eskolan entrenatzen ginen talde misto batean, eskola-orduetatik kanpo, Bigarren Hezkuntzako zikloan sartu nintzenera arte. Hasieran kostatu egin zitzaidan; ez nuen nire tokia topatzen, taldekideen konpromisoa ez zen lehenago nire lagunek zutena. Hortaz, hurrengo urtean, lagun batekin Vitoria-Gasteizko klub batera joan nintzen. Berriak ginen. Klubean exijentzia-maila handiagoa zen, entrenatzen denbora gehiago eta asteburuero ligako partida bat. Asteburuero jokatzen genuen. Klub horretan lau urtez egon nintzen. Haur-kategorian hasi eta junior-kategorian sartu arte jarraitu nuen. Zaila izan zen, junior-kategorian jende gutxi zegoelako taldean, eta selekziotik deitu zidaten. Etapa gogorra izan zen. Batzuetan goragoko kategoriara eramaten ninduten, helduekin jokatzerara. Asteburuetan batzuetan nire partida jokatu eta handik 40 minutura senior-mailakoekin beste partida bat jokatzen nuen.

Saskibaloian jokatzen hasi nintzenetik, hainbat entrenatzaile izan ditut, beti gizonezkoak. Haur-kategorian hiru izan nituen, bi urtez kadeteen mailan egon nintzenera beste bat eta gero beste bat. Oso oroitzapen onak ditut, nire entrenatzailea oso mutil atsegina zen, gertukoa, ondo konpontzen zen gurekin eta gurasoekin, pazientzia zuen, ez zigun inoiz oihurik egin. Hala ere, 13 urterekin klubean sartu nintzenera entrenatzaileak bestelakoak ziren. Aurrekoek ez bezala, presio izugarria egiten zuten, kirol-errendimenduan jartzen zuten arreta, baina haien metodologia ez nuen gustuko. Asko oihukatzen zuten, iruzkin desatseginak egiten zituzten eta beheratu egiten gintuzten. Hamahiru-hamalau urterekin normala iruditzen zitzaigun. Banekien klubetako exijentzia-mailak handiagoa izan behar zuela, baina ez nuen hori espero. Entrenatzaileek jarrera hori justifikatzen eta normalizatzen zuten, “hau klub bat da, horrela behar du, ez kexatu” esaten zuten. Oihuak, zigorrak eta irainak entrenamenduen eta partiden parte zirela zirudien, kantxan eta kantxatik kanpo gertatzen ziren. Publikoa aurrean zegoenean edo gurasoen aurrean.

Jokalarien arteko harremana beti ona izan da. Junior-mailako klubera joan aurretik, barneratuta geneukan sailkapenean talderik okerreina ginela. Horren ondorioz gure artean ez zegoen hainbesteko lehia.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

Bigarren Hezkuntzan klubez aldatu nintzenean hasi ziren arazoak. Urte horietan sexu-jazarpeneko egoera bat bizi izan nuen, entrenatzaileak eraginda. Alde batetik, etengabe oihukatzen zuen, entrenamenduetan zein partidetan. Bestetik, gure gorputzari buruzko iruzkin desagokiak egiten zituen. Adibidez, esaten zigun "bost kilo gutxiago bazenitu" edo "arraioa, arradatu gabe zaude". Eta denen aurrean egiten zituen. Lekuz kanpo zeuden iruzkinak ziren, iraingarriak.

Entrenatzaile horrek eta klub berean aritzen ziren beste entrenatzaile batzuek bazekiten nori "kasu egin"; norekin izan zezaketen harremana kantxatik kanpo, bizitza pertsonalean. Batzuei bestelako proposamenak egiten zizkiguten, bortitzagoak. Adibidez, "etxera kotxez eramango zaitut". Garai hartan ez genuen ikusten zer lortu nahi zuten proposamen horiek botatzen zituztenean. Orain argi ikusten dut, une horretan gu etxera eramatea baino zerbait gehiagoren bila ari ziren. Halaber, guregana hurbiltzeko sare sozialak erabiltzen zituzten. Nire lagun baten kasuan, entrenatzailea sare sozialen bidez harremanetan jarri zen berarekin, eta argazki intimoak eskatzen zizkion. Bere taldekidea nintzen arren, gertuko laguna, niri ez zidan ezer kontatu. Momentu horretan ez nintzen jabetu. Esango nuke izututa zegoela, ez zuela gaia jorratu nahi. Imajinatu zer gertatuko zatekeen kontatu izan balu. Denek jakingo zuten, baita gurasoek ere. Antzeko jarrera desagokiak eta bortitzak bizi genituen gure taldean eta gainerako taldeetan. Gerora jakin izan dugu.

Nire kasuan, jazarleak gizonezkoak izan dira. 15 urterekin entrenatzailea eredu da, erreferentziako pertsona, eta zure konfiantza lortu nahi du. Gaztea zarenean ez zara konturatzen, eta jarrera hori atsegin duzu. Hain gaztea izanda, ez dakizu non dagoen muga. Inork ez digu esan "hori ez duzu onartu behar" edo "hori ez dago ondo"; hortaz, azkenean jarrera hori denok onartzen dugu. Nahiz eta askotan entrenatzaileek kantxan oihu egin edo umiliatu, "hautatuak" ginenoi, desberdin tratatzen gintuzten. Nolabaiteko adeitasuna erakusten zuten eta gure lagunak izan nahi zutela zioten. Kantxan jarrera jakin bat erakusten zuten, eta beste bat entrenamendua edo partida bukatzen zenean. Haiekin ateratzeko eskatzen ziguten, guretzat erronka moduko bat izango balitz bezala. Zorionekoak izango bagina bezala, beraiekin ateratzeko zortea izan dugulako.



Indarkeria jasan ondoren, eta kantxan zuten jarreraren ondorioz, saskibaloia utzi nahi nuen. Oso erreta bukatu nuen.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Ez dut gai honi buruz hitz egin heldua izan naizen arte. Bere garaian, kantxako jokabide oldarkorrak ez genituen batere ondo eramaten, baina "hurbiltzeko" proposamenak jasotzen genituenak lausengatuta ere sentitzen ginen. 15 urterekin gauzak desberdin ikusten genituen; orain, heldua izanda, beste modu batera ikusten ditut. Egungo klubean komentatzen hasi nintzen. Bertan antzeko egoera bizi izan dugula ikusi genuen, eta batzuetan entrenatzaile berdinekin. Amarekin 26 urte nituela hitz egin nuen, eta aho zabalik gelditu zen. Ez zeukan horren berri, eta hau esan zidan: "nolatan ez zenuen ezer esan, kontaktu egin behar zenigun, eta ez genuen horrelakorik imajinatzen". Azkenean, gurasoek klub batera eramaten gaituztenean, entrenatzaileengan konfiantza osoa dute. Saskibaloiko jokalariai prestatzen dituzten helduekin ondo egongo garela uste dute.

Egungo taldeko nire kideek eta nik garai hartan gertatu zenaren berri eman genuenean, klubak ez gintuen babestu. Imajinatu, klubeko presidentea garai hartan entrenatzailea zen. Orduan ezer esaten ez genuenez eta proposamen horiek egitea gustatzen zitzaigula erakusten genuenez, orain gauzak testuingurutik atera nahian genbiltzala pentsatuko zuten. Ez da normala klub batek jarrera horiek "normaltzat" hartzea, une hartan guk uste genuena alde batera utzita.

Hori gainditzea kostatu zait, egoerak okerrera egin ez bazuen ere. Aldaketak eragin ditu nire bizitzan. Adibidez, orain entrenatzaileengan konfiantza izatea kostatu egiten zait. Ez naiz fio haietaz.

Nire esperientziatik abiatuta, gaia ikusgai jarri behar dugula uste dut. Adibidez, lehen pertsonan kontatutako lekukotza gehiago behar ditugu, elkarrizketak eta erreportajeak. Halaber, interesgarria iruditzen zait sentsibilizazio-tailerrak prestatzea; bertan, egokiak ez diren jarrerak identifikatzen ikasi behar dugu, kirolariei aipatutako egoerak identifikatzeko, aurre egiteko eta prebenitzeko tresnak emateko. Badirudi kirol-kultura berezia dela, bizitzako beste testuinguru batzuetan bizi denaren desberdina. Baina,

azken finean, kirolak heziketa-arlo bat izan beharko luke; informala, baina heziketari lotutakoa. Entrenatzaileek hezitzaile izan behar dute, batez ere adingabeekin lan egiten dutenean. Entrenatzaileak eta gainerako talde teknikoa oinarrizko pertsonak dira, eta gaia serio jorratu behar da klubetan, buruak “klik” egin dezan.

Junior-maila bukatutakoan saskibaloia utzi behar izan nuen; erreta bukatu nuen eta 17 urterekin kluba uzteko erabakia hartu nuen. Baina une hartan, estatu-mailako hautatzailea zen entrenatzaile batek esan zidan Araban lehen mailako talde batek eta bigarren mailako beste batek jokalaria behar zituela. Nik bigarren mailako taldean aritzen ziren neska batzuk ezagutzen nituen. Batzuk nire ondoan bizi ziren, eta, oso nekatuta nengoen arren, azken aukera bat ematea erabaki nuen, eta taldera sartu nintzen. Kirolaren arloan hartu dudak erabakirik onena izan da. Gaur egun, saskibaloian jokatzen jarraitzen dut. Emakumeek osatzen eta autokudeatzen duten klub batean nago. Arauak guk jartzen ditugu, guk bilatzen ditugu entrenatzaileak... Taldea izateaz gain, familia ere bagara. Talde honetan nire taldekideen babesak aurkitu nuen; gure lehentasuna elkar zaintzea da. Denak pozik gaude, eta taldearen barruan bete behar dugun papera ulertzen dugu. Saskibaloiaz gozatzen dugu eta, hortik aurrera, guretzat garrantzitsuak diren helburuak ezartzen ditugu. Jokalari guztion profila antzekoa da; izan ere, beste talde batzuk utzi genituen, esperientzia txarrak izan genituelako. Topo egin genuenean konturatu ginen antzeko bizipenak genituela, eta ez genuela kirola utzi nahi, gertatutakoa gorabehera. Kirolean bizitako sexu-indarkeriaren arloko esperientziei buruz hitz egitea ez da erraza, baina gune seguruei esker hori jakinaraztea eta gainditzea posiblea da. Gaur egun errespetu handiz tratatzen gaituen gizon batek entrenatzen gaitu. Taldean giro ona sortzeko gai da. Hurbila da, baina beti muga errespetatuz, eta hori niretzat oso garrantzitsua da. Gure bizitza ez da bere kontua, baina aldi berean konfiantza ematen digu.

### 5.3. YÖDOG

#### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Yödog naiz, 51 urte ditut eta Bizkaian bizi naiz. Txikia nintzenean denbora asko eman nuen kalean jolasten. Errepidean bertan egoten ginen, goitibeherekin, edo futboleko jokatzen. Atseginez oroitzen naiz. Garai hartan Realak bi liga irabazi zituen Athletic taldea

hurbil izanda; horren ondorioz, denok Realean jokatu nahi genuen. 8 edo 9 urte nituela San Mamesen ligetako bat irabazi zutela ikusi nuen. Futbola nire ametsa zen, nire grina. Zortzi urte nituela hasi nintzen futbolean jokatzen. Hasieran eskubaloian ere aritzen nintzen, baina laster utzi nuen.

Futbolean aritzen nintzen eskolaz kanpoko jarduera batean. Nire herria nahiko handia da; hortaz, hainbat eskola zeudenez, liga kanpora atera gabe jokatzen genuen. Zortzi eta hamabi urte bitartean, taldez aldatu nintzen behin baino gehiagotan, baina beti herrian. Atezaina nintzen. Nahiko txikia nintzen, eta, hortaz, ez nuen gehiegi jokatzen; horregatik, hain zuzen ere, ez nengoen urduri, eta ondo pasatzen nuen. Asko disfrutatzen genuenez, entrenamenduetatik kanpo ere futbolean aritzen ginen. Nire ustez, ausarta naizenez atezaina izatea erabaki nuen. Neure burua lurrera botatzen nuen beldurrik gabe, eta horrek atezain ona izan nintekeela pentsatzera eramaten ninduen.

Entrenatzaile ugari izan ditut; gehienak lehiakorrak ziren, eta helburu nagusia kirol-errendimendua zen. Adina gorabehera, nahi zuten gauza bakarra irabaztea zen. Oso ondo gogoratzen dut herritik kanpo jokatzerara atera ginen lehen aldia, sailkatzea garrantzitsua zenez, ez nuen minutu bat ere jokatu. Irabazi behar genuen. Tratua hobe edo txarragoa izan zitekeen, baina helburua beti berdina zen.

Klubez askotan aldatu naizenez, taldekide desberdin ugari izan ditut. Nire ustez, taldeko giroa taldekideen araberakoa da hein handi batean. Inoiz ez dut arazorik izan. Beti eroso sentitu naiz; baina egia da txikia zarenean jokatzeke lehia askotan ez dela nabaritzen. Hasierako etapa horretan ondo moldatzen ginen.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

8 urte nituela jazarpena hasi zen. Nire jazarlea klubetik atera eta beste klub batera eramanez ninduen entrenatzailea izan zen. Inoiz ez zen nire entrenatzailea izan, baina klubean berak sartu ninduen. Gainera, litxarreriak edo tragoak erosten zizkidan, eta Zubizarretaren kamiseta ere erosi zidan. Neure burua baloratuta sentitzen nuen, zainduta. Gizon hori nire familian sartu zen. Jaietako lonja batean hasi zen dena. Eskolan jolasean ikusi ninduen eta nirekin hitz egitera hurbildu zen, baita guk une hartan haurrak

ginela erabiltzen genuen hizkera propioan ere. Pixkanaka-pixkanaka elkar ezagutu genuen eta talde berrira eraman ninduen. Nire amak zazpi seme-alaba ditu, eta oso lanpetuta zebilela aprobetxatu zuen ni entrenamenduetara edo partidetara eramateko. Hain adiskidetasun handia izan zuen nire gurasoekin, ezen bat gehiago baitzen. Urtezahar-gau batean ere afaltzera etorri zen. Urte batzuk eman zituen horrela, eta nire anaia txikiez abusatzeko ere aprobetxatu zuen. Inoiz ez genuen aipatu, baina nik banekien zer gertatzen ari zen jarduteko moduagatik, eta bazekiten nirekin zegoela, baina inoiz ez genuen aipatu.

Kantxatik kanpo behartzen ninduen beti, bakarrik geundenean. Udan udal-igerilekuetan egin ohi zuen.

Behartu ninduen entrenatzailea hori boteretsua zen. Lagun boteretsuak zituen, eta oso ondo moldatzen zen futbolaren eremuan. Inoiz ez zen nire entrenatzailea izan, baina nire klubean aritzen zen, eta bere eskutik sartu nintzen ni. Behartu ninduen arren, ez nuen futbola alde batera utzi.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Txikia nintzenean oso sexualizatuta nengoen. 8 urte nituela behartu ninduten, eta pertsona horrek egiten zidanaren ondorioz plazera sentitzeaz gain, beldurtuta nengoen. Hortaz, batzuetan, lagunekin nengoenean masturbatzen nintzen. Iseka eta xantaia egiten zidaten, eta horri esker ikusi nuen zerbait txarra zela entrenatzaileak egiten zidana. Ez nuen inoiz inorekin hitz egin. Banekien gertatzen zena ez zegoela ondo, baina inoiz ez nien nire gurasoei kontatu. Sekretu bat zen. Ez dut gogoan mehatxu egin zidanik ere. Horren parte nintzela uste nuen, nire ardura ere bazela. Termino hori, ardura, ez nuen ezagutzen, baina horren parte nintzen, gure sekretua baitzen. Hamaika edo hamabi urte bete nituenean eta kuadrillarekin ateratzen nintzenean, ez nuen hori nahi. Kalean ikusten nuen, eta badakit nire bila ibiltzen zela; beraz, ihes egiten nuen. Harrapatuta nengoen, bola bat zen, eta gero eta handiagoa bihurtzen ari zen. Erruz betetzen ninduen bola bat zen, eta berak bazekien ez nuela ezer esango. Bola geroz eta handiagoa zen... Gainera, aurre egiten ez nionez, baimena ematen niola zirudien. Geroz eta zailagoa zen beste modu batera jardutea. Ez nuen aukerarik ikusten. Ez nintzen kontatzera ausartzen.

Gainera, horri buruz hitz egiten banuen, nire anaiei gertatutakoa ere kontatu behar nuen. Horrek esan nahi zuen haien familiei aurre egin behar niela, kontatu nuen unean neuk egin behar izan nuen bezala.

Heldua nintzenean hitz egin nuen lehenbiziko aldiz egoera honi buruz, urte asko igaro ziren hori gertatu zenetik. Ziurrenik momentu hartan gertatzen ari zenagatik hitz egiteko erabakia hartu nuen. Nire emaztearekin erosi genuen pisura joan nintzen, eta hortik gizon hori egunero ikusten nuen, 9 urte inguruko mutil batekin. Handik gutxira haurraren aitarekin ikusten hasi nintzen. Kotxez eramaten zuen. Orain BMW markako kotxe bat zeukan, eta ez nire garaian gidatzen zuen *seiscientos* delakoa. Igerilekuan ikusten nuen, udan askotan behartzen ninduen tokian. Orduan amorratu eta triste sentitzen nintzen, eta nire alabekiko jarrera aldatu nuen. Bukle batean sartu nintzen; ezin nuen gehiago jasan, barruan neramana atera nahi nuen. Gaizki nengoen, baina ez nuen lortzen. 2016ko abenduaren 5ean, ordea, Jordi Évole kazetariaren programa bat ikusi nuen La Sexta katean. Gloria Viseras gimnasta olinpikoa agertzen zen bertan, bera ere behartu zutelako. Nola sentitzen zen kontatzen zuen. Eta nik gauza bera sentitzen nuen. Une horretara arte, gai horiei buruzko saioak ekiditen nituen, eta nire emazteak berearekin ikusteko gonbita luzatzen zidan, oso ondo zeudelako. Egun hartan nire emaztea telebistarekin hizketan hasi zen, telebistan zegoen pertsona babesten: “ez da zure errua, errua berea da, ez beste inorena”. Berarekin hitz egin behar nuela erabaki nuen momentu hartan. Ohean sartu eta ez nion ezer esan; hurrengo egunean esnatu eta aurpegia aldatu zitzaidan. Nire emazteak berarekin egon nahi ez nuela uste zuen. “Zurekin hitz egin behar dut” esan nion eta gertatutakoa kontatu nion: nire anaien aferak kontatu nion, une hartan gertatzen ari zena, eta berak laster lanari ekin zion. Nire emaztea erizaina da, tratamendua emateko lekua bilatu zuen eta salaketa jartzera joan ginen Bizkaiko beste herri batera. Ez genuen nire herrian egin bagenekielako nire erasotzaileak lagun-sare zabala zuela. Terapian murgildu nintzen eta ez nion inori esan. Bi urte eman nituen banakako eta taldeko saioekin. Hasieran ez nuen taldeko saiorik egin nahi, baina joaten hasi nintzenean egoera bestelakoa izan zen. Egia esan, gehien lagundu didaten saioak dira. Salaketa nire herrira eramanean zutenean Ertzaintzatik nire emaztearekin jarri ziren harremanetan. Berak, hasiera batean ez zuen esan nahi ni nintzela, eta lagun baten kasua zela esan zuen. Baina niri deitu zidatenean, neu nintzela

esan nuen. Nirekin hitz egin nahi zuten. Ez nuen komisariara joan nahi izan, baina etxera etorri ziren gertatutakoaren berri jasotzera. Nik dena kontatu nien, orain zuei kontatu dizuedan bezala. Fiskaltzak gidatutako ikerketa bat martxan jarri zen. Horretarako, 9 urte zituen haur horren eskolara joan ziren, zerbait nabaritu zuten jakiteko eta haurraren gurasoei abisatzeko. Aurrerago deklaratzera deitu ninduten, eta esan zidaten nire anaiek ere testigantza eman behar zutela. Oraindik ez nuen haiekin hitz egin. Niretzat zaila izan zen, eta banekien haientzat ere zaila izango zela. Beren bikoteak, seme-alabak nituen buruan, horrek bizitza hankaz gora jarriko zien. Baina terapeutarekin hitz egin nuen eta jarraibide batzuk eman zizkidan. Horrela egin nuen. Nire etxean bildu nituen, garagardoa erosi eta bakarrik gelditu ginen. Sukaldean geunden. Gertatutako kontatzen hasi nintzen eta berehala esan zidaten haiek ere bizi izan zutela eta deklaratu zutela. Nik egin nuen bezala, haiek ere deklaratu zuten. Baina hantxe bukatu zen dena, gertaera haietatik igarotako denboraren poderioz preskribatuta zegoelako. Fiskalarekin hitz egin nahi izan genuen, baina ez zigun jaramonik egin. Ez genuen horrela utzi nahi. Gure testigantzaren berri ematera joan ginen epaitegietako leihatilara. Azkenean, fiskala esan behar genuena entzuteko prest agertu zen.

Dena lehertzeko moduan zegoen, eta publiko egin behar nuen galdetu nion. Nik erabaki behar nuela esan zidan, ondorioak izango zituelako. Egia esan, momentu hartan ez genekien zer egin eta alde egin genuen. Orduan nik klubeko zuzendaritzako kide batekin hitz egin nuen. Oso harreman estua geneukan, eta txikitan bere entrenatzailea izan nintzen. Esan zidan betidanik gauza asko entzuten zirela. Pare bat hilabete igaro ziren, baina klubak ez zuen erantzun. Futbol-eskolako beste lagun batekin harremanetan jarri nintzen. Gogoan daukat, WhatsAppetik “aizu, hitz egin behar dugu” idatzi nion. Noski, berak bazekien zertarako zen, eta aitzakiak bilatzen zituen behin eta berriro. Uda bukatu zenean ez genuen hitz egitea lortu. Baina uda bukatu ondoren elkar ikusi genuen. Esan zidan erasotzaile horren penalak hutsik zeudela. Nik baietz erantzun nion... Noski, epai irmorik gabe hamaika salaketa izan ditzakezu, baina penalak garbi daude. Laguntzeko prest ez zeudela ikusita, klubera bueltatu ginen eta kargutik kentzeko eskatu genien. Kargutik kentzen bazuten, zalaparta nabarmena izango zen, denek, nola edo hala, bazekitelako zer egiten zuen. Horren berri zuten. Hilabete eta erdi igaro zen, eta pertsona horrek entrenatzaile izaten jarraitzen zuen. Klubarekin eta fiskalarekin hitz egin ondoren

eta dena preskribatuta zegoela jakinda, nire erasotzaileari esan nahi nioena idatzi nuen. Gainera, aurpegira esan nahi nion. Idatzitakoa buruz ikasten denbora eman nuen. Egun batean, igerilekurako bidean, erasotzailearekin topo egin nuen. Nirekin topo egin eta ez zeukan lotsarik. “Biok badakigu zer egin zenidan” esan nion. Eta berak burua makurtu eta galdetu zidan: “zer egin dizut nik?”. Nire erantzuna irmoa izan zen: “nire bizitza izorratu”.

Urrian haur batekin harremanetan jarraitzen zuela ikusi nuen. Oraingoan, aurrekoan ikusi nuen mutilaren anaia txikiarekin zegoen. Momentu hartan zerbait gehiago egin behar nuela erabaki nuen. Nire elkartean kanpainarako bideo bat grabatzeko erabakia hartu genuen. Helburua zen sexu-abusua jasan zuten pertsonen bizitakoaren berri ematea. Hasiera batean aurpegia pixelatzea eta ahotsa distortsionatzea pentsatu genuen. Baina grabatu aurretik konturatu nintzen horrela eginez gero, inork ez zuela jakingo nor zen gizon hura. Denak berdin jarraituko zuen. Aurpegia erakutsi eta nire ahotsa erabilia egitea erabaki nuen. Sare sozialetara igo genuenean bideoa birala egin zen. Hedabideetatik deika hasi ziren. Beldurtuta nengoen; mezuak bidaltzen zizkidaten, eta abizena begiratuta nire anaia bilatzen zuten. Eromena izan zen. Baina eraginkorra ere izan zen, salaketa gehiago jaso genituelako. Nolanahi ere, ez ziren espero nituenak bezainbeste izan. Guztira zazpi jaso genituen. Garai latza izan zen, baina kalera irteten jarraitu nuen. Zerbait hartzera ateratzen nintzen bakoitzean etengabe niri buruz hitz egiten zutela nabaritzen nuen. Nik ez nuen ezer esaten. Garrantzitsuena izan zen erasotzailea abusatzen ari zen adingabearen gurasoek jarri zutela salaketetako bat. Kasu horretan, ez zegoen preskribatuta. Salaketa horren ondorioz kartzelatu zuten.

Nire esperientzia kontuan hartuta, esango nuke gauza ugari aldatu behar direla kirolaren eremuan. Horietan lehenengoa entrenatzaileen eta jokalarien arteko harremana da. Ezin da gertuko harremana izan, aurretik aipatu ditudan baldintzetan. Beste eremu batzuetan ez da gertatzen. Baina kirolaren eremuan harreman mota hori baimenduta dago. Erasotzaileek badakite nola harrapatu haurra. Ezin dugu onartu entrenatzaileak haurra zinemara edo etxera eramatea. Nire garaian bideokaseteak ziren, baina orain *Playa* izan daiteke. Bigarrena errepresaliei diegun beldurra desagerraraztea da. Kasu batzuetan entrenatzailea hurrekin aldagela berean dutxatzen zen. Guraso askok hori ikusi eta ez

zuten ezer esaten. Hirugarrena erakundeetarako da; izan ere, haurrentzako prestakuntza eta hitzaldiak antolatu beharko lituzkete, helduek kaltetu ditzaketela ikus dezaten. Eta, hala ere, behartu bazaituztete, kontatu behar duzu. Ezin duzu luzatu, nik egin bezala. Berrogeita lau urte nituela, nire emaztea lanean zegoenean, argia piztu behar izaten nuen lo egiteko. Ohearen azpian eta armairuen barruan begiratu behar izaten nuen. Amesgaiztoak nituen. Orain, tratamenduarekin, ez dut amesgaiztorik. Hurbileko laguntza oso garrantzitsua da. Laguntza psikologikoa oso garrantzitsua da. Bizitakoa ez da aldatuko, baina horrekin bizitzen ikasten duzu. Gaur egun askoz hobeto nago. Hala ere, gaur egun nire erasotzailea kartzelan badago ere, amorrua ematen dit; ez zuten nire kasuaren ondorioz kartzelatu, salatu zuen adingabe baten eraginez baizik. Eta pena handia ematen dit, futbola delako... Hau beste kirol batean gertatu izan balitz, ez ziren hainbeste urte izango, ezta? Gizon honek berrogei urte inguru eman ditu haurrak kirolaren eremuan behartzen, eta bereziki futbolaren eremuan. Gainera, futbolaren kasuan, guraso askok Messi etxean daukatela uste dute, gora egiteko aukera izango dutela, eta askotan horren ondorioz harreman garrantzitsuak dituzten pertsonak babesten ditugu. Klubak horren beldur dira, jendeak klubetik alde egingo duelakoan, eta horrek eragin dezakeen kalte ekonomikoaren beldur dira. Baina, nire kasua ikusita, egiaztatu dut familia gutxik alde egiten dutela klubetik dena jakitera ematen denean.

Futbolaz gozatu dut urte luzez. Erasotzaile horrek behartu ninduen aldia amaitu zenetik, gutxi gorabehera hamabi urte nituenetik, klubean jokatzeko jarraitu nuen. Hamasei urte nituela, ez nuela atezaina izan nahi erabaki nuen. Gustuko nuen futbola, baina oso gutxitan jokatzeko nuen, eta ez nuen hori gustuko. Hortaz, ondoko herrira alde egitea erabaki nuen. Bertan, zelaian aritu nintzen gazteen mailan, eta askotan jokatu nuen. Herritik kanpo jokatzeko nuenean zailagoa zen taldearen parte izatea, askotan kanpokoek titulartasuna kentzera joaten nintzela uste zutelako. Lehia nabarmenagoa zen, baina hortik gutxira denak lagunak ginen. Garai hartan beste indarkeria mota batzuk bizi izan nituen. Kasu horretan, harmailetan, eta, batez ere, gurasoen eskutik. Nire gurasoak izkina batean jartzen ziren, beldurtuta, eta ni lasaitu egiten nintzen, 16 urte nituelako eta egoera desatseginak zirelako. Bizkaiko beste herri batean jokatu genuen partida batean, berriz, jokalaria igo ziren harmailetara elkarri jotzeko. Ni tokian gelditu nintzen, zur eta



lur. Geroztik, urte ugari eman ditut jokatzeko, futboleko zein areto-futboleko. Egiazatu dezaket indarkeriak oraindik ere futbol-zelaietan jarraitzen duela. Oso gutxi aldatu da.

#### 5.4. HAIZEA

##### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Haizea naiz, 28 urte ditut eta Bizkaiko udalerrri batean bizi naiz. Txikia nintzenetik kirol ugari aritu naiz. Batetik bestera ibiltzen nintzen, probatzen. Balleta, dantza modernoa, multikirolak (boleibola egiten genuen, besteak beste) eta herri-kirolak egin izan ditut. 12 urte inguru nituela, saskibaloian izena eman nuen. Gainera, “parkeko neska” izan naiz, eta askotan kalean jolasten nintzen. Edozein motatako jarduerak gustuko nituen, baina inoiz ez dut gurpildun kirolak (skatea, adibidez) edo oinekin egiten den (futbola, adibidez) kirolak egin. Dena probatzea gustatzen zitzaidan, eta etxean, posible izan den heinean, baimena eman didate. 12 urte nituela saskibaloian modu jarraituan jokatzeko hasi nintzen, klub batean. Txikitatik oso lehiakorra izan naiz; horregatik, dantza maite nuen arren, faktore hori faltan botatzen nuen, eta saskibaloiak bazeukan.

Lehen Hezkuntza etapan eskolak antolatzen zituen eskolaz kanpoko jarduerak ziren. Urte horietan, ez nintzen lehiatzen; klubean sartu nintzenen hasi nintzen. Talde mistoetan aritzen ginen, baina neska gehiago zeuden mutilak baino, futboleko ez bezala. Adibidez, nire lagun bat taldeko neska bakarra zen.

Astean bitan entrenatzen ginen, eta gero asteburuan partida izaten genuen. Esan dudako bezala, eskolako taldea mistoa zen, baina une jakin batean ezin izan genuen horrela jarraitu, adina zela eta. Hortaz, maila altuagoa genuenen kasuan, helduagokoen taldera pasa eta ligan jokatzeko hasi ginen. Aurrerago, helduago ziren neskek unibertsitatean joan ziren, eta talderik gabe gelditu ginen. Gutxi gorabehera 17 urte nituenen. Hortaz, beste klub bat bilatu behar izan nuen, beste talde femenino batean jokatzeko jarraitzeko. Horren ondorioz, jokalarik gazteenetarikoa bat izatetik, zaharrena izatera pasa nintzen. Aldea ez zen oso esanguratsua, urtebeteko aldea baitzen, baina niretzat kontrastea zen aurreko urteekin alderatuta. Zaharragoak diren neskekin jokatzetik gazteagoekin jokatzera pasa nintzen.

Saskibaloian jokatzen eman nituen urte horietan entrenatzaileak beti gizonezkoak ziren. Eskolako klubean egon nintzen bitartean, hiru entrenatzaile izan nituen. Gero, kluba aldatzean, beste entrenatzaile bat izan nuen. Oso bestelakoak ziren ezaugarri pertsonalei eta entrenatzeko moduari dagokienez, baina egia da horietako bi oso antzekoak zirela. Hogeitaka urte inguru izango zituzten bi mutil ziren, oso zentratuta, mutil gazteak izateko. Emaidza onak lortu nahi zituzten, baina aldi berean oso ludikoak ziren. Oso ondo pasatzen genuen. Ni oso lehiakorra nintzen, beti dena oso ondo egiten nuen. Titularra izatea bermatu nahi nuen, bestela oso gaizki hartzen bainuen. Horrekin esan nahi dut merezi nuela, baina ordu asko sartzen nituelako. Entrenatzaileek taldeetako esanekoak hartzen zituzten kontuan, gainerako taldea arrastaka eramateko. Beste entrenatzaile bat, nirekin urtebetez edo gehienez bi urtez egon zena, taldera sartu zen, ez zegoelako entrenatzaile nahikorik. Ez zen hain lehiakorra, eta nik hori ez nuen gustuko. Kooperatzea eta ondo pasatzea gustuko zuen, eta niri kostatu egiten zitzaidan hori onartzea, emaitza ona ikusi nahi nuelako partidari. Baina oroitzapen ona ere badut.

Beti ondo konpondu naiz gainerako jokalariekin, nire lagunak ziren, niretzat “etxea” ziren. Hasieran ez zegoen lehiakortasunik titularra izateko.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

Saskibaloian egoera bestelakoa zen, gainerako kirolekin alderatuta (futbolarekin, adibidez). Inoiz ez dut oihurik entzun, ondoko kantxan entzuten banituen ere, eta gurasoak adeitsuak ziren. Ez dut indarkeria-girorik antzeman inoiz, beste kirol batzuetan gertatzen den bezala. Bueno... Indarkeria “orokorrei” buruz ari naiz, nire kasuan sexu-indarkeria bizi izan bainuen nire kirol-jardueraren barruan. Saskibaloiko nire azken taldean gertatu zitzaidan. 17 urte nituela beste talde batera joan nintzen, aurrekoa desagertuko zelako. Jokalariek taldea dagoeneko osatuta zeukaten, eta hasieratik hori mugatzailea izan daiteke. Gainera, beste baldintzatzaile batzuk ere banituen nik; izan ere, elikadura-portaeraren nahasmendu bat daukat, eta zaugarriagoa izan naiteke.

Testuinguru horretan ez nintzen seguru sentitzen. Giroa hotza zen, aurreko klubarekin alderatuta oso bestelakoa, etxean sentitzen nintzelako bertan. Nire ustez, horregatik hurbildu zen entrenatzailea nigana. Nirekin hitz egiten hasteko bidea zen hori. Niretzat

aintzat hartzen ninduen pertsona batekin topo egitea izan zen; ondo egiten nuena azpimarratzen zidan eta egoerari aurre egiten laguntzen zidan. Aldi berean, nire autoestimua hobetzen lagundu zidan, ez baitzen oso ona. Taldeko erabakiak hartzeko, nigana jotzen zuen. Pixkanaka-pixkanaka entrenamenduetara joateko nire bila etortzeko proposamena luzatu zidan, eta hor... piropoak hasi ziren. Eskalatzearen modukoa zen; hasiera batean egoera oso leuna zen, eta, azkenean, zakarra bazina bezala sentitzen zarela aintzat hartzen zaituen norbait etortzen bada, horrek mendekotasuna sortzen du. Horregatik amain ematen diozu zeure buruari. Azken batean, gaztea zara eta nire egoerak ez zuen batere laguntzen. Denoi gustatzen zaigu gauza politak entzutea. Askotan hitz egiten genuen WhatsApp bidez, eta argazkiak eskatzen zizkidan. Desiratua sentitzen nintzen, eroso, ederra, alde horretatik zetorren lausenguagatik. Entrenamenduetara berarekin joaten nintzela aprobetxatuz, lehenago joaten ginen, biak bakarrik saskibaloian jokatzerara. Pixkanaka-pixkanaka, bakarrik jokatzen genuen buruz buru partida horretan, zirriak egin eta lekuz kanpo zeuden apustuak egiten genituen. Behin, lehenago joan ginen egun horietako batean aldageletara eraman ninduen eta zirriak egiten hasi zen. Bakarrik entrenatzearena justifikatuta zegoen, ni ona eta, aldi berean, zaharragoa nintzelako; beraz, gehiago entrenatu behar nuen. Ez dut askoz gehiago gogoratzen. Ez dakit noraino iritsi ginen. Badakit urrun samar iritsi ginela; sentsazioa daukat ahoko sarketara iritsi ginela, baina ezin dut ezer gehiago esan, ez dudalako gogoratzen. Nik 17 urte nituen, eta berak, 34. Ez dakit berriro entrenatzera joan nintzen edo hor bukatu ote zen dena. Baina esperientzia horren ondorioz saskibaloia utzi nuen eta gaur egun arte ez dut baloirik ukitu.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Graduko hirugarren edo laugarren mailan nire buruak “klik” egin zuen. TeleBerri ikusten ari ginen, eta beste abusu-kasu baten berri ematen ari ziren. Orduan, amak zergatik ez zuen salatzen galdetu zuen. Eta nik esan nion: “agian ez duelako nahi, edo ez dagoelako prest”. Gai horri buruz hizketan jarraitu genuen. Eta bat-batean nik hori bizi nuela ikusi nuen. Momentu horretan “klik” egin eta amari kontatu nion. Lur jota gelditu zen, errudun sentitzen zen, pertsona horren esku utzi ninduelako. Kezkagarria suertatu zitzaidan, ama kezkatuta zegoelako horren ondorioz. Momentu horretan nire depresioen zergatia ulertu genuen. Gaur egun blokeatuta jarraitzen dut, ez dut ezer gogoratzen. Nire

kasuan, amnesia-moduko egoera bat izan zen. Depresioetan murgildu nintzen. Mundu guztiak selektibitatea zela esaten zuen; izan ere, nota onak atera nahi nituenez, ingurukoek, baita amak ere, ikasketak utzi ahal nituela esan zidaten. Baina niretzat erokeria zen hori, ez zeukan zentzurik. Nik banekien egun osoa negarrez ematen nuela, ezin nintzen bakarrik gelditu. 17 urte nituela berriro ere gurasoekin lo egitera bueltatu nintzen, ezin nuelako bakarrik lo egin, eta ez nuen ulertzen. Horrek nire bizitzan eragina izan zuen. Gogoan dut nire lagunak saskibaloi-klubaren instalazioetatik gertu zeuden askaldegi batzuetara joan nahi zutenean ere niri kostatzen zitzaidala joatea.

Hurrengo urteetan askotan topo egin dut pertsona horrekin. Topo egiten genuen bakoitzean lur jota gelditzen nintzen eta hortik ihes egin behar izaten nuen. Ingurukoek ez zuten ulertzen, eta nik ez nion inori ezer esan. Pertsona hori Correosen aritu da lanean, nire etxe azpian. Aurrez aurre topo egin genuen lehen aldian, zuri gelditu nintzen. Ez nekien zer egin, lur jota gelditu nintzen. Gainera, irribarre egin eta hau esan zidan: “zure aurpegia ezaguna egiten zait”. Ezin nintzen Correosera joan pakete baten bila, ez nintzen egoera horri aurre egiteko gai. Errudun sentitu naiz. Beti batzorde feministetako kide izan naiz, aldarrikatzeko jarrera erakutsi dut, eta bat-batean, salaketa ez jartzea ulertzen duzula esan eta ondoren zu zeu zara salaketa jartzen ez duena. Baina lotsa ematen zidan onartu behar izatea, epaituta sentitzea. Iruzkina ugari jaso ditut: “Nolatan izan zara hain inozoa, nolatan gertatu zaizu zuri” edo “nolatan ez duzu salatu”. Horrek erru-sentimendua areagotzen du. Nire amak salaketa jarri nahi izan zuen, baina ezin izan genuen. Hiru urte pasa ziren, eta ez neukan probarik. Egin nahi nuen, baina ez neukan ezer, ezta garai hartan erabiltzen nuen tekladun mugikorra ere. Ez dakit egoera bera bizi izan duen beste jokalaririk dagoen, baina berak esaten zuena ikusita, aurretik eta ondoren jende gehiago egon dela uste dut. Adibidez, ondoren etorri zena azkarragoa izan zen. Hitz egiten hasi zirenean kontatu zuen, gainerako jokalariei kontatu zien. Honako hau esan zien: “ez duzue asmatuko zer esan didan entrenatzaileak”; eta noski, horrek eragina izan zuen. Nik ez nuen egin. Nire kasuan, zaharrena nintzenean, gainerako taldekideei buruzko iruzkinak egiten zituen. Iruzkina sexualak edo euren fisikoari buruzko iruzkinak ziren, oso ederrak zirela esaten zuen. Hortaz, beste neska batzuk egoera berean egon zirela uste dut.

Esango nuke nire taldekideek ez zutela horren berri izan. Nik taldearekin nuen harremana eten nuen. Gaur egun elkar agurtzen dugu, baina ez, ez daude nire sare sozialetan. Konturatu gabe, esango nuke ez dudala harreman horiekin jarraitu nahi izan; alde batetik, lagun berriak ziren, eta, bestetik, duela gutxi gertatutako egoera negatibo bat zen, eta ez nuen nirekin eraman nahi. Hortaz, ezin dut esan lagundu nindutenik, ezta gaia alde batera utzi zutenik ere, ez zeukatelako horren berri. Era berean, ez dut gogoratzen klubeko zuzendaritzako inork edo gurasoek lagundu nindutenik. Dena oso sekretupekoa, pribatu izan zen, eta uste dut inork ez zuela ezer jakin.

Kontatu nuenean norbaiti zerbait kontatu nahi izatean une perfektuaren zain egotearen sentipena izan nuen, baina une horiek ez dira iristen, behartu egin behar dira, ez delako gai natural bat. Azkenean, tentsio-egoera da, eta nik amarekin harreman estuan neukan eta daukadan arren, beldur nintzen. Gainera kontatu nion. Baina kontatzea da lantzeko modua. Amarekin hitz egin ondoren, lagun batzuekin hitz egin nuen, eta, gero, psikologoarekin. Psikologoak erakutsi zidan zenbat eta gehiago hitz egin, orduan eta errazagoa dela prozesatzea.

Nire esperientziatik, uste dut sexu-abusuko egoera batzuei aurrea har dakiekeela. Nirean, adibidez, nolabaiteko isolamendua zegoen. Talde batean sinergiak ikus daitezke, eta gainerako taldekideetatik apur bat baztertuta geratzen den jendea. Eta hori eskola-jazarpenaren kasuetara iritsi gabe. Hau da, batzuk besteak baino integratuago daude. Hori adierazle bat izan daiteke, bakartiago egotea. Klubek sentsibilizazio-jardunaldiak egin beharko lituzkete, informatu, gai hauei buruzko trebakuntza eman. Eta ez soilik entrenatzaileekin, baita kirolariek ere, azken horiek baitira egunerokoan daudenak eta gauzak ikus ditzaketenak. Eta, guztion artean, emakumezkoen taldeak zailak direla dion diskurtsoa apur dezakegu, horrek hausturak, oztopoak ekartzen baititu sartzean. Hala ere, babestuta bazaude, kirolean sexu-indarkeriako egoera bat bizitzeko aukera gutxiago dituzu.

Gaur egun, jarduera fisikoa egiten jarraitzen dut. Hainbat urtez egon nintzen kirolik egin gabe; eta berriro hasi nintzenean, waterpoloan hasi nintzen. Itzultzea niretzat kirolarekin berriz konektatzea izan zen, kirola praktikatzen hasi nintzenean nituen sentsazioak

izatea, etxeko talde bateko kide izatea. Zalantzarik gabe, egungo entrenatzaileak asko lagundu zuen talde-kohesioa sortzen eta taldeko kide senti nendin.

## 5.5. LUR

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Lur naiz, 33 urte ditut eta Gipuzkoako udalerrri batean bizi naiz. Nire haurtzaroa gogoratzean, lehenengo oroitzapenak beisbolean edo puxtarrietan jolasten aritzea edo lehengusuekin hondartzan beste edozein jarduera egitea dira. Era berean, udako gauak datozkit burura, auzoko hurrekin kalean jolasten igarotzen genituenak. Jolasa oso presente egon da nire bizitzan, eta, egia esan, gaur samurtasunez gogoratzen ditudan urteak etsipenez oroitzen ditut. Eskolan ere asko gozatu nuen kirolaz. Lehen hezkuntzako hirugarren mailatik, eskola-kiroletako programan eskaintzen ziren kirol guztietan parte hartu nuen. Batez ere, saskibaloian, eskubaloian eta futbolean jokatu nuen. Gainera, atletismoan eta igeriketan ere apuntatu nintzen.

DBHko lehenengo mailan bitxikeria bat gertatu zen: bizi nintzen udalerriko klub nagusiko eskubaloi-entrenatzailea etorri zen eskolara entrenatzera. Une horretan, eskolako fitxarekin jokatzeko genuen, eta ezin ginen federatu 14 urte bete arte. Nire ustez, teknikari horren entrenatzeko moduak emaitza onak ekarri zizkigun, eta horrek, aldi berean, bi urte geroago eskubaloian federatzea aukeratzera bultzatu ninduen. Gainera, aldi horretan, kantzako jokalaria izatetik atezain izatera igaro nintzen. Postu horretan jokatu dut ondoren nire kirol-bizitza osoan. Nolanahi ere, niretzat frustragarria izan zen adin horretan kirol bakarra aukeratu behar izatea; izan ere, nire lagun askok jarraitu zuten arren, batzuek utzi egin zuten denboraldiaurrearen ondoren, entrenatzaileak eskatutako konpromisoa oso handia zela iruditzen zitzaielako.

Ez naiz oso ondo gogoratzen zeintzuk ziren gure entrenatzaileak hasiera horretan, baina uste dut gehienak guraso boluntarioak izango zirela. Gogoan dut, ordea, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailan bi neska jatorrek entrenatzen gintuztela saskibaloian eta urte batzuetan gure taldea entrenatzen jarraitu zutela. Azkenik, herriko klub nagusira iritsi aurretik, 12 urtetik aurrera, eskubaloian esperientzia handiagoa zuen gizon batek entrenatu gintuen. Entrenatzaile hori eraginkorragoa zen alderdi tekniko-taktikoak irakasten eta, aldi berean, aurrekoak baino zorrotzagoa zen kirol-errendimenduari dagokionez.

Kirolarien arteko harremanei dagokienez, oroitzapen asebetetzailerak ditut. Testuinguru horretan egin ditut lagun onenetako asko.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

Bizi nintzen udalerriko klub nagusian nengoen garaian, eskubaloian jokatu nuen. Egia esan, garai hartako oroitzapen oso ona daukat. Kadeteak ginela, emaitza onak izaten hasi ginen, Euskadiko txapelketak irabazten, eta Espainiako txapelketako sektoreetarako sailkatzen, baita amaierako faserako ere kadeteetan eta gazteetan. Eskubaloiarri esker, hainbat lekutara bidaiatu ahal izan dut. Eskubaloia asko gustatzen zitzaidanez, entrenatzaile ere izan nintzen. Gogoan dut Batxilergoan nengoela, nire entrenamenduez, entrenatzen nuen taldearen entrenamenduez eta partidez gainera, egunero kiroldegian sartuta nengoela. Aldi horretan, eskubaloian aritu nintzen etapa handiengan, batez ere bi entrenatzaile izan nituen. Hala ere, gizonak ere entrenatu naute. Berariaz nire posturako (atezaina) entrenatzaileak izan dudana aldi gutxi horietan, gizonetakoak izan dira beti. Uste dut izan ditudan entrenatzaile guztiak nahiko desberdinak izan direla, baina, batez ere, partidetan urduri ez jartzea baloratzen nuen, lasai egoten eta zer egin behar genuen esaten jakitea. Guztiak oso desberdinak izanik, gaur-gaurkoz maitasunez gogoratzen ditut eta horietako askorekin harremana izaten jarraitzen dut. Taldekideei dagokienez, federatutako etapa horretan giro ona izan dugu beti taldean. Liskarrak, batez ere, baten bat entrenamenduetara etortzen ez zenean eta, gero, beste batzuk baino gehiago jokatzeko zuenean izaten ziren. Taldearekiko konpromisoarekin edo lanpostu espezifiko bakoitzeko «zeloekin» lotutako gaiak ziren, bestelako liskarrekin lotutakoak baino. Nire ustez, taldeko kirolek harreman sozialetan laguntzen dute. Harreman bereziak, estuagoak sortzen diren espazioak edo testuinguruak dira.

Esaten dutenaren arabera, eskubaloiko atezain izateko, apur bat zoratuta egon behar duzu. Egiari zor, ez dakit. Baina badakit nolabaiteko harreman berezia, estuagoa, sortzen dela atezainen artean jokalarien artean baino. Eta, halaber, nolabaiteko harreman bereziagoa, estuagoa, sortzen da atezainen entrenatzaileen eta atezainen artean.



14 urte nituela, geroago nire erasotzailea izango zena ezagutu nuen. Zehazki, udako eskubaloi-campus batean. Ez zen nire taldearen entrenatzailea, baina campus horretan, zazpi egun horietan, halakotzat aritu zen. Lehenengoz nire posturako berariazko entrenatzaile bat izatea zer zen sentitu nuen, atezain gisa nire jokia hobetzeko entrenamendu eta ariketekin. Normalean, atezainak malgutasun-ariketa batzuk egitera ohituta gaude, edo gure kontura beste atezain nagusiago batzuei ikusten genizkien beroketak egitera. Nire ustez, apur bat abandonatuta egon gara beti. Nekez izan dugu atezaintzako berariazko ariketak jakin eta aplikatzen zekien entrenatzaile bat. Nire kasuan, zazpi egun horietan izugarri ikasi nuen, eta entrenatzailea asko mirestera iritsi nintzen, zekien guztiagatik eta entrenatzeko zuen grinagatik. Gainera, esaten zuten selekzio nazionalean jokatu zuela. Ez zen edozein entrenatzaile! Ikusten zen atezain ona izan zela bere garaian, eta zekien guztia neureganatu nahi nuen. Tira, entrenatzaile gisa liluratuta ninduen.

Campusean goizez eta arratsaldean entrenatzen ginen, eta atezainoien entrenatzaile horrek entrenatzen gintuen. Asier deituko diogu. Lehen urteko kadetea nintzen, eta atezain gisa hobetu egin nahi nuen; une horretan, saskibaloia dena zen niretzat. Hortaz, dena ematen nuen entrenamenduetan eta Asierri gustatu egiten zitzaion hori. Eta nik, aldi berean, nolabaiteko onespen hori bilatzen nuen haren aldetik. Campusa amaitutakoan, azken egunean, gau-jai moduko bat zegoen, eta monitoreek edo entrenatzaileek entrenamendu-kamisetak, eskumuturrekoak eta antzeko opariak ematen zizkiguten campusean parte hartu genuen jokalariei. Asierren txanda zenean, eta hitz egiten hasi zenean, ezin hobeto gogoratzen dut denek nire izena xuxurlatzen zutela, argi geratu izan balitz bezala bere “gogokoena” izan nintzela. Eta, hain zuzen ere, hala izan zen. Bere kamiseta oparitu zidan. Ni, noski, ikaragarri poztu nintzen, nire idoloa zelako, horrenbeste irakatsi zidan nire entrenatzaile gustukoena, eta, beraz, harentzat ere atezain berezia izan nintzen.

Euskal Herria ez da oso handia, eta eskubaloiaren mundua are gutxiago; hortaz, txapelketetan edo kirol-ekitaldietan elkartzeko jarraitzen dugu. Gogoan dut ilusio berezia egiten zidala nire herrira zetorreanean jokatzerako entrenatzen zuen taldearekin, edo bera bizi zen lekura jokatzerako joaten ginenean, harmailetan topo egin eta elkar agurtu ahal

izateko. Miretsi egiten nuen, eta gehien nahi nuena berak ni entrenatzea zen; hortaz, zenbait campusetara joaten jarraitu nuen.

Ez dakit noiz hasi zen kontua okertzen. Gogoratzen naiz urte batean, espero gabe, nire urtebetetze-egunean, SMS bat iritsi zitzaidala ezagutzen ez nuen zenbaki batetik. Asier zen. Poztu egin nintzen, noski. Banekien hurrengo egunean bere urtebetetzea zela, eta, beraz, mezua itzuli nion, zorientzeko. Gogoratzen naiz egun batzuk geroago, gauetz, SMS arraro bat iritsi zitzaidala. Esan dezagun nahiko poetikoa zela. Hortik aurrera, mezu “arraro” gehiago iristen hasi zitzaizkidan, eta ez nekien nola hartu.

17 urte nituenean, haur-talde bat entrenatzen nuen beste lagun batekin; lagun hori, bestalde, une hartako nire entrenatzailearen alaba zen. Entrenatzaile horrek harreman handia zuen Asierrekin eta egun batean gutun bat eman zion nire lagunari, niri emateko. “Zuretzat da, Asierren partetik” —esan zidan lagunak. Oso ondo gogoratzen naiz non eta noiz eman zidan, eta, ireki aurretik, lagunak eta biok elkarri begiratu geniola harrituta, gutun horretan idatzita zegoena zer zen susmatuko bagenu bezala. Maitasun-gutun bat zen. Asierrek esaten zidan nitaz maiteminduta zegoela aspalditik eta berarekin irten nahi nuen galdetu zidan, bere neska-laguna izan. 17 urte nituen, eta oso ondo gogoratzen dut, berak 34 zituelako une hartan. Eta pentsatu nuen adina bikoizten zidala!

Nire laguna eta ni isilik geratu ginen eta zera galdetu zidan: “Zutaz maiteminduta dagoela, ezta?” Eta gaineratu zuen bere amak ere antzeko zerbait pentsatu zuela. Isilik geratu nintzen, geldi. Mundua erori izan balitzait bezala izan zen, nire entrenatzaile gustukoenak, inoiz izan nuen onenak... zergatik egin zuen hori? Gogoan dut etsipen izugarria sentitu nuela, nire idoloa erori zitzaidala... Eta goibel eta ahul sentitu nintzela. Inoiz ez nion erantzun. Uste dut gutunean bertan esaten zidala ezer nahi ez banuen ez neukala zertan erantzun. SMSak jasotzeari utzi nion, nire urtebetetze-egunean izan ezik, oraindik ere idatzi egiten baitzidan egun hartan. Nik ez nion erantzuten, eta jada ez nion bere egunean zorientzen. Urrundu egin behar nuela sentitu nuen.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Ez nion inoiz nire entrenatzaileari aipatu, nahiz eta banekien bazuela gertatukoaren berri, nire lagunak —bere alabak— kontatu ziolako. Gaur-gaurkoz, pentsatzen dut zergatik ez zuen une hartan jardun. Beste inori ere ez nion komentatu, lotsa ematen zidala zirudien. Gainera, maitasun-adierazpen bat zen, ni ia adinez nagusia nintzen. Beldur nintzen jendeak pentsatuko ote zuen ez zuela ezer “txarrik” egin. Baina halako sentipen arraro bat izan nuen beti, urteetan eduki dudana eta edukitzen jarraitzen dudana gogoratzen dudanean.

Asierrek eta nik inoiz ez genuen gaiaz hitz egin, eta ez dut gogoratzen beste inoiz elkartu ginenik hori gertatu ondoren. Nire bizitzatik ezabatu izan banu bezala izan zen. Badaezpada, ez nuen ezer gehiago jakin nahi berari buruz. Baina, esan bezala, eskubaloia mundua oso txikia da, eta urte batzuk geroago jakin nuen nesken talde bat entrenatzen ari zela, talde horretan bertan jokatzen zuen nire adineko neska batekin ateratzen ari zela. Horrez gain, beste klub batean arazoak izan zituelako informazioa iritsi zitzaidan, eta, oker ez banago, arazo horiek jokalaria adingabe batzuei bidalitako mezu batzuekin lotuta zeuden. Egia esan, ez nintzen batere harritu. Urrutitik etortzen ikusi izan banu bezala izan zen, halako zerbait iritsiko zela. Ni ez nintzela berezia, edonor izan zitekeela. Egiaz, poztu egin nintzen, justizia pixka bat egin izan balitz bezala sentitu nintzen.

Gaur-gaurkoz, oraindik ere pentsatzen dut: zer egin behar nuen, “maitasun” gutun bat bidali zidala salatu? Baina ez zidan “ezer” egin! Nola salatu, zer salatu ez bazegoen. Nire entrenatzailearengana edo klubaren zuzendaritzara jo behar nuen? Nire entrenatzaileak bazekien eta! Iruditzen zait sentsibilitatea falta dela eta lan egin behar dela prebentzioan. Nire ustez, adingabe batek “arraroak” direla uste duen jokabideak behatzen edo bizitzen baditu, edo beste jokalaria batengandik susmoak iristen bazaizkio, norengana jo jakin beharko luke. Kirol-klubetan ez zaie informaziorik ematen jokalariei nola jokatu jakin dezaten, edo, funtsean, ez dago jarduketa-protokolorik. Gaur egun, uste dut une hartan klubean erantzukizunak zituen norbait hurbildu izan balitzait hori gertatu baino lehen eta entrenatzaileen edo klubeko beste pertsona batzuen jokabide onartezin

horien berri eman izan balit, agian pertsona horiengana joko nukeela hori guztia gertatu zenean. Uste dut entrenatzaile eta jokalarien arteko lotura oso polita dela, baina arriskutsua izan daiteke adinez nagusien eta adingabeen arteko harremana izanik, eta, beraz, klubek nolabait zaindu egin behar dute. Klubak prozesu horietan aurrera egiten ausartuko ahal dira! Horrela, ekintza zehatzen bidez, hala nola klub horretan, oso sotilak izan arren, horrelako jokabiderik onartzen ez dela jakinaraztea eta ohartaraztea denei, kontrol estuagoa behar dute, eta, horrela egoera larriagoei aurrea hartzea lortuko dute.

17 urte igaro dira gutun hori jaso nuenetik. Beste kirolari batzuek jasandako kirol-arloko jazarpenen lekukotza batzuk irakurrita, oso identifikatuta sentitu naiz, eta nire kirol-bizitzako pasarte hain goibel hori ekarri didate gogora. Hitz hauek idatzi aurretik, nire lagunari idatzi diot, Asierren, nire entrenatzaile gustukoenaren, gutuna ireki nuenean nirekin zegoenari, eta horretaz gogoratzen den galdetu diot. Jakina, gertaera horretaz oroitzen dela esan dit. Bizipen horiek ez dira ahazten. 17 urte igaro dira, eta biok ezin hobeto gogoratzen dugu gertatutakoa. Horrenbeste denbora igaro ondoren, esan zidan dena arraroa, oso arraroa, izan zela, baina ez genuela espero. Esaldia hitz hauekin amaitu du: “Izan ere... Inozentegiak ginen”. Arrazoa duela uste dut, inozenteak ginela, baina gehituko nuke, batez ere, behar bezala lagundu gabeko adingabeak ginela, eta, beraz, ez zutela jakin nola jardun kasu horretan.

Eta hori ez da batere arraroa eskubaloia ren munduan. Gogoratzen dut nire klubean beti neskak entrenatzea aukeratzen zuen entrenatzaile gazte bat zegoela. Guztioi arraro samarra egiten zitzaigun, ikusten genuelako entrenatzaileak konfiantza “handia” zuela jokolariengan. Kiroldegitik kanpo ikusten zenuen jokalariekin... eta, ez dakit, intuizioak dira, baina, ez dut uste horrelako kasu bakarra izango zenik. “Ligatzeko” entrenatzaile bat zela aipatzen zutela entzuten genuen, edo guk egiten genituen horrelako iruzkinak. Guztioi apur bat arraroa iruditu arren, uste genuelako jokolariengana gehiegi hurbiltzen zela, inoiz ez zen ezer gertatu (guk dakigula), eta ez zen ezer egin egoera hori aldatzeko. Nire ustez, jokabide mota horiek ezin dira baimendu. Lerro fin bat dago “entrenatzaile jatorra” izatetik “gehiegikeriak egiten dituen entrenatzailea” izatera. Gaur egun, ez dakit ziurtasun osoz, baina entzungo banu entrenatzaile horrek jokalariren batez abusatu

duela, ez nintzateke harrituko. Eta, hain zuzen ere, horrexek larritzen nau. Ez litzateke onartu behar adin nagusiko entrenatzaile gazteak jokalaria adingabeei lekuz kanpo “hurbiltzea”.

Asier deitu diodan entrenatzailearen eskutik jazarpena jasan ondoren, eskubaloian jokatzen jarraitu nuen 25 urte bete nituen arte. Garai hartan, inguruabar horrek ez zidan eragin horrenbeste eman didan kirol-diziplina hori praktikatzen jarraitzeko. Testuinguruak, lagunek, eskubaloiak ematen zidan guztiak, eta bizitako sexu-jazarpeneko egoera ez larriagotzeak lagundu egin zidaten eskubaloian jokatzen jarraitzen. Gaur egun, 33 urte ditudala, eskubaloiazen mira dut, baina ezingo nuke jarraitu eskatzen den konpromiso-mailarekin. Entrenamendu-egun eta txapelketa asko dira, ia asteburuero. Oraintxe bertan beste lehentasun batzuk ditut bizitzan. Hala ere, ohitura horrek, nire kasuan, entrenatzeko ordutegi batzuk izatearenak, funtsezkoa izaten jarraitzen du nire kabuz jarduera fisikoa egiteko. Izan ere, ordutegirik gabe... Beti lana, etxeko lanak edo egunerokoan egin beharreko beste zeregin batzuk lehenesten ditut.

## 5.6. ANE

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren aurreko etapa**

Ane naiz, 24 urte ditut eta Bizkaiko udalerrri batean bizi naiz. Haurra nintzenetik, asko jolastu naiz kalean lagunekin, baita aita eta amarekin ere. Mutilekin jolastu ohi nintzen beti, futbolekin, saskibaloian eta esku-pilotan jokatzea gustatzen zitzaidalako. Horregatik, “marimutil” deitzen zidaten; pentsatzen dut hori garai hartako neskek kirol horietan jokatzen ez zutelako zela. Dantza edo beste jarduera “femeninoago” batzuk egiten zituzten. Baina horrek ez dit axola izan, beti eman izan dit berdina, egiten nuena gustatzen zitzaidalako. Hortaz, ez diot garrantzi handirik eman beste neska batzuek eta, batez ere, mutilek erabiltzen zuten hitz horri.

Lehen Hezkuntzako nire etapan, egiten nituen jarduera guztiak antolatutakoak ziren, dena eskolaz kanpokoa zen, eta horien artean, hauek nabarmentzen ziren: igeriketa, esku-pilota, euskal dantza eta futbola. Igeriketan hasi nintzen gurasoek beti esaten zidatelako lehenengo igeri egiten ikasi behar nuela, gero nik nahi nuen kirola egin ahal

izateko. Astean bi egunetan joaten nintzen, baina ez nintzen lehiatzen. Esku-pilota beti ikusi izan dugu etxean telebistan, eta asko gustatzen zitzaidan, nire familian asko ikusten zelako eta delako. Euskal dantzetan lau urte nituela apuntatu ninduten, eta gaur-gaurkoz jarraitu egiten dut, taldea gustatzen zaidalako, gure kulturaren parte delako eta, batez ere, euskaldunontzat duen esanahiarengatik. Futbolaren kasuan, 10 urterekin hasi nintzen; beti izan da nire ametsa talde batean jokatu ahal izatea. Asko gustatzen zitzaidan, eta, gainera, niretzat kirola beti izan da oso garrantzitsua. Azken kirol horretan lehiatu egiten nintzen. Astean bi egunetan entrenatzen ginen, eta gero, asteburuan, partida izaten genuen.

Taldeko neska bakarrenetakoa nintzen arren, batez ere futboleko, klub guztietan ondo hartu naute. Inoiz ez dut arazorik izan gustatzen zitzaidana egiteko. Nire gurasoek ere nahi nuena aukeratzeko askatasuna ematen zidaten. Hori bai, baldintza batekin, urtea amaitzea; izan ere, beti irakatsi didate taldearekiko eta izena ematen nuen jarduerarekiko konpromisoa.

Urte horietan, hainbat entrenatzaile izan nituen, ordura arte guztiak gizonezkoak, inoiz ez emakumezko entrenatzaile bat. Horien oroitzapen ona daukat, niri gustatzen zait entrenatzaileak gogotik prestatzea entrenamenduak eta ondo ezarritako helburuak izatea. Garrantzitsua iruditzen zait taldea eramaten jakitea eta duten guztia ematea.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren etapa**

13 urte bete nituenean, lesionatu egin nintzen. Zehazki, lotailu gurutzatua apurtu nuen, eta, beraz, futbola utzi behar izan nuen. Igeriketa edo txirrindularitza bakarrik egin nezakeen, eta, beraz, waterpoloan jokatzen hastea erabaki nuen. Taldeko eta baloidun kirolak gustatzen zitzaizkidalako erabaki nuen hori. Aukera ona zen. Waterpolo-talde batean sartzen saiatu nintzen, baina proba bat egin ondoren, ez ninduten hartu. Asko ginen plaza gutxi batzuetarako. Horregatik, etxetik hurbilen zegoen klub batean saiatu nintzen, bazkidea bainintzen. Talde horretan onartu ninduten. Talde mistoa zela esan zidaten, nahiz eta ni izan neska bakarra. Une hartan kirol hori egiteko aukera bat eman zidaten, baina ez zuten emakumezkoen talderik. Gerora, emakumezkoen talde bat sortu zuten, gelditu nendin.

Niretzat oso positiboa izan zen, gustuko nuen kirol bat egiten jarraitzeko aukera eman baitzidan. Esango nuke, bizitza guztirako markatu nauen esperientzia jasan nuenean etorri zela arazoa. Nire lehenengo urtea zen klubean, eta haur-taldeko neska bakarra nintzen. Taldekideek nire adin bera zuten. Jazarri ninduen pertsona ere nire adinekoa zen. Garai hartan, nire taldekide horren aldetik ukituak jasan nituen, beste jokabide batzuen artean. Kostatu egin zitzaidan zer gertatzen ari zen ikustea. Hasieran, ukituak uraren barruan ziren. Waterpoloak kontaktu handiko kirola da, baina behar ez zen lekuetan ukitzen ninduen. Gero, aldatzen ari nintzela edo dutxatzen ari nintzela aldagelan sartzen hasi zen. Egoera horren aurrean, ahalik eta azkarren dutxatzen ahalegintzen nintzen, iristen zenerako jantzita egon nendin eta biluzik ikusi ez ziezadan. Neska bakarra nintzen eta banekien beti bakarrik egongo nintzela nesken aldageletan. Egoera hori aprobetxatzen zuen, eta nahi zuena egiten zuen. Gainera, niretzat egoera zaila zen, belaunean ebakuntza egin zidan medikuaren semea zelako, eta, beraz, kontatzeak ere beldurra ematen zidan.

Entrenatzen eta lehiatzen ginen instalazioan ez dakit ikusten ote zuten mutil hori aldagelara sartzen zela, baina, zalantzarik gabe, inoiz ez zuten ezer esan, ez ezer egin.

### **Sexu-abusuaren/-jazarpenaren ondorengo etapa**

Gertatzen ari zitzaidanaz kontziente izatea kostatu zitzaidan arren, konturatu nintzen hori ez zegoela ondo eta ez zitzaidala gustatzen. Horregatik, zaurgarritasun-egoera horiei aurrea hartzen saiatzen nintzen; adibidez, ahal nuen azkarren aldatuz, hura sartu aurretik. Uste dut inork ez zekiela zer gertatzen zen eta ez nuen inoiz ezer esan horrek guztiak sortzen zidan erruduntasun-sentimenduagatik. Gainera, nola kexatuko nintzen egoera horretaz klubak mutilen talde batekin entrenatzeko aukera eman zidanean? Ez nuen hori galdu nahi.

Hori guztia dakiten bi pertsona bakarrak lagun bat eta nire psikologoa dira. Azken horrek lagundu dit jasandako sexu-abusua kanporatzen. Gaur egun, nire gurasoek, anaiak eta familiak ez dakite ezer horri buruz. Sentitzen dut orain ezin dutela ezer egin hori

konpontzeko, eta ez zait beharrezkoa iruditzen haiei min hori sortzea. Badakit beren buruari errua botako ziotela gertatu zitzaidanagatik eta, nire ustez, horrek asko eragingo lieke eta ezingo lukete horri buruz pentsatzeari utzi.

Nolanahi ere, ez nion utzi kirol hori egiteari. Bera han egonda ere, jokatzeko jarraitu nuen. Gaur egun, 24 urte ditudala, kirol-diziplina hori praktikatzeko jarraitzen dut, baina beste klub batean. Hasi nintzenetik, beti talde berean egon naiz. Aurten, ordea, zuzendaritzak taldea desegin du, eta klubez aldatu naiz. Nire helburua lehiatzen jarraitzea da, egunero hobetuz, eta fisikoki ongi mantentzea. Gainera, waterpoloak buruko lasaitasun handia ematen dit, barrenak lasaitzen dizkit eta taldeak une oso on ugari ematen dizkit igerileku barnean zein kanpoan. Inoiz ez naiz lehiaketa autonomikoetatik harago iritsi, nahiz eta Madrilen nazio-mailakoan jokatzeko aukera izan nuen, baina hainbat arrazoiengatik ezin izan nuen. Azkenean ikasten ari nintzen, joan-etorriek eta entrenamendu-orduak denbora asko kentzen zidaten eta ezin nuen onartu. Gustatuko zitzaidakeen, baina uste dut beti nahi dudala hobetu eta taldearekin dena eman. Eta Euskadiko ligak aukera hori ematen dit, etengabeko erronkak dira.

Hori bai, onartu beharra daukat, kirol hau egiten jarraitu badut ere, niretzat egoera hori bizitzeak nolabaiteko mesfidantza ekarri dit, batez ere gizonekin harremanak izateko. Gainera, zailtasunak ditut harreman afektiboetan. Kirol berari lotuta egoten jarraitu dut, berarekin banengoen ere, baina kostatu egiten zait pertsonekin gertukoa izatea. Kontaktuari uzkur egiten diot eta konfiantza hartzea kostatzen zait. Ez naiz edonorekin fidatzen.

Hori dena saihesteko, nire ustez, gehiago kontrolatu beharko lirateke aldageletarako sarrera-irteerak, eta arreta gehiago jarri entrenamenduetan. Igerileku batean zailagoa da, baina ezer ez da ezinezkoa. Gainera, egia da kasu honetan kiroldegian jendea ari dela lanean eta seguru nago neurri gehiago har ditzaketela. Entrenatzaileei dagokienez, nire ustez, lerroa errespetatu behar dute, hau da, entrenatzaileak izatea, eta ez lagunak. Pentsatzen dut garrantzitsua dela mota horretako harreman onartezinak ez normalizatzeke.



Eta horrelako egoerak bizi dituzten pertsoneri esango nieke errua ez dela haiena, norbaiti konta diezaiotela lehenbailehen mozteko eta bakoitzak egiten duenagatik ordaintzeko. Egia da horrelako egoera batek markatu egiten zaituela beti, eta, batzuetan, pentsatzen duzula berriro gerta litekeela, baina, hala ere, munduan pertsona on asko daude. Inguruan bilatu behar da laguntza, azken finean, horiek baitaude beti zure alboan eta ez baitzaituzte inoiz utziko. Mina ematen dien arren, haiek dira pixkanaka gure bizitzarekin jarraitu ahal izaten lagunduko digutenak. Nik, adibidez, egoera gainditu bakarrik nahi dut, zaila delako ahaztea, baina gainditu eta beti ez gogoratzea.

## **6. AZKEN GOGOETAK**

### **6.1. SEXU-INDARKERIAREN ESPERIENTZIAREN AURREKO ETAPA**

- 1) Parte-hartzaile guztiek bizipen positiboak izan dituzte, eta ikastetxeek antolatutako edo beraiek autokudeatutako curriculumaz kanpoko jardueretako kirolean gozatu egin dute.
- 2) Guztiek hamar urte baino lehen aukeratu zuten taldeko kirol inbasibo bat (saskibaloia, futbola, eskubaloia eta waterpoloia). Kirol-diziplina horiek aukeratu zituzten taldeko lagun hurbilenek aukeratu zituztelako edo, gainera, gizartean presentzia handia zutelako.
- 3) Entrenatzaileen lidergo-estiloak aldatu egiten dira, batik bat ikastetxetik klubera igarotzen direnean. Ikastetxeetako entrenatzaileek estilo demokratikoagoa eta ludikoagoa erabiltzen dute. Klubetan aritzen direnak, aldiz, autoritarioagoak eta zorrotzagoak dira. Parte-hartzaileek entrenatzailearen estiloaren garrantzia aipatzen dute. Motibatu eta zuzenduko dituzten entrenatzaileak bilatzen dituzte, baina ez modu autoritario eta oldarkorren (oihuak, umiliazioak...).
- 4) Aurreko puntua kontuan hartuta, konfiantza ematen dien entrenatzailea izan behar duela uste dute, baina mugak beti markatuta geratu behar direla, ez da bizitza pertsonaletan sartu behar inola ere.
- 5) Parte-hartzaile guztiek pertsonen arteko harreman positiboak izan dituzte gehienbat. Hau da, talde bateko kide direla sentitu dute. Taldeko kide izatearen sentipena oso handia da.

## 6.2. SEXU-INDARKERIAREN ETAPA

- 1) Pertsona horietaz abusatu zutenean egiten zuten kirol-jarduera nagusia hamar urte bete baino lehen aukeratu zuten berbera zen, kirol-jarduera berri baten hasierarekin bat etorri zen kasu batean izan ezik. Kasu guztietan kirol-klub batek antolatutakoa zen. Astean bi edo hiru egunetan entrenatzen ziren, eta partida bat izaten zuten asteburuan.
- 2) Pertsona guztiak adingabeak zirenean abusatu zituzten, baina ondo bereizitako bi adinetan: hamar urte baino lehen eta 13 eta 17 urte bitartean.
- 3) Pertsona horietaz abusatu zutenean zuten adina gorabehera, patroï berberak ditu *grooming*ak edo kirol-testuinguruan sexu-indarkeria gauzatzeko prozesuak: 1) erasotzaileak konfiantza-harremana ezartzen du, eta horretan kirolaria ondo sentitzen da, atsegin du; 2) harremana gero eta hurbilagoa egiten da, eta opariak egiten edo zinema gonbidatzen hasten dira (haurren adinean), edo piropoak, argazki intimoen eskaerak, entrenamenduak bakarka egiteko gonbidapenak, parrandan irtetea edo elkarrekin irtetea (gazteen adinean), eta 3) konfiantza-harremana ezarri ondoren, sexu-abusua kontaktu fisikoarekin edo gabe egiten duten unea iristen da.
- 4) Sexu-indarkeria kantxa barruan eta kanpoan gertatu da. Kantxa barruan kirolarientzako jazarpena diren iruzkinak ditugu. Beren gorputzei buruzko iruzkinak, adibidez. Kantxatik kanpo, berriz, ohikoagoak dira telefono bidezko mezuak (sare sozialen bidez), instalazioan bertan entrenatu aurreko edo ondorengo topaketak, erasotzailea aldageletara sartzea, erasotzailearen auto pribatuan bidaiatzea, beste kirol-instalazio batzuetan topaketak egitea (hala nola igerileku batean) edo jaiekin lotutako topaketak izatea (tabernak, diskotekak, kalean...).
- 5) Erasotzailea adin nagusiko gizonezko bat izan ohi zen, taldekidea edo biktimak entrenatzen ziren klubeko kidea. Oro har, kirol-errendimendua lortzeko entrenatzaile eraginkorrak ziren. Klubean fama ona zuten euren kirol-lorpenengatik. Biktimen entrenatzaile baziren, entrenamenduetan autoritarioak, zorrotzak, diziplinatuak eta, askotan, oldarkorrak izaten ziren. Hala ere,

biktimekin kantxa barruan eta, batez ere, kanpoan, erlazionatzeko modua hurbilagoa eta adiskidetsuagoa zen. Elkarrizketatutako pertsonak dohain bat esleitzen diete, ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten biktimak zehatz-mehatz aukeratzen dituztelako: goi-mailan entrenatu nahi dute, lehiakorak dira, diziplinaz gozatzen dute, esanekoak dira, jarraibideak banaka jasotzeko prest daude joko-maila hobetzeko, eta, kasuren batean, entrenatzaileak beren autoestimua sendotu edo areagotu dezaten behar dute.

- 6) Berdinen arteko pertsonen arteko indarkeriaren kasuan, erasotzailea biktimaren adin berekoa zen, talde bereko kideak ziren, eta haien genero-identitatea jazarritako pertsonarenaren bestelakoa zen. Indarkeria kirola egitean gertatu zen (kasu honetan, igerileku batean), eta entrenamendua amaitu ondoren, instalazioko aldageletan. Biktima neska bakarra zen taldean eta aldagelan; hortaz, horrek jazarpena larriagotu edo erraztu zezakeen.

### **6.3. SEXU-INDARKERIAREN ONDORENGO ETAPA**

- 1) Biktima guztiek denbora luzea (hainbat urte) behar izan dute bizi izandako egoera jendaurrean azaltzeko. Hiru modutan egin zuten: 1) Horietako bik beste berdin batzuekin hitz egin zuten lehen aldiz, eta ingurune seguru batean (bizipen horiekiko sentsibilitate handia zuen saskibaloit-talde bateko jokalaria-talde bat). Egoera berdina edo antzekoa bizi izan zuten pertsona gehiago zeudela sentitu eta jakitean ireki ziren. Kasu honetan, aurkitutako testuinguru segurua izan zen hori eragin zuena (parte-hartzaileek eurek autogestionatutako emakumezkoen talde bat, beste talde batzuetatik sexu-indarkeriak bizitzeagatik joandakoak). Ondoren, familiari kontaktu zioten. 2) Beste bi pertsonak, hasteko, familiarekin hitz egin zuten. Kirolariak izandako sexu-indarkeriako esperientziak kontaktu zituzten bi telebista-saioren eraginez. Programa horietan lekukotza zuzenak kontaktu zituzten, eta biktimek ikusi zutenean haien senideek pertsona horiekiko elkartasun-iruzkinak egiten zituztela, kontaktzera animatu ziren. Etxean kontaktu ondoren, konfiantzazko beste senide eta lagun batzuei kontaktu zieten. 3) Batek lagun batekin hitz egin zuen lehen aldiz, eta, gero, psikologoarekin; azken horrek kanporatzen lagundu dio. Kasu honetan, ez du familiarekin partekatu.

- 2) Kirol-testuinguruko eragileei (entrenatzaileak, zuzendaritza-batzordea eta klubeko kideak) jakinarazitakoan, konturatu ziren gertatzen ari zen edo gertatu zen egoera horren jakitun zirela. Halaber, klubeko zuzendaritzaren erreakzioa antzekoa izan zen gertatutakoa jakinarazi zitzaizen kasu guztietan: biktimarekin harremanik ez izaten saiatzea, luzamendutan ibiliz, ez jardutea, denbora pasatzen uztea eta jendaurrean ez jartzen ahalegintzea. Kasu bakar batean ere ez zuten erasotzailea entrenatzaile kargutik kendu.
- 3) Biktimetako hiruk, gutxienez, laguntza psikologikoa behar izan dute egoera gainditzeko. Gainditzeko prozesuak luzeak eta zailak izaten dira. Asko laguntzen du estimatzen zaituzten beste pertsona batzuei kontatzeak. Uste dute ez dela guztiz gainditzen, baina horrekin bizitzen ikasten dute. Elkarrizketatutako pertsona guztiak, hain batean, ahaldunduta sentitzen dira. Badakite zer pasatu zaien, ulertzen dute beste biktima batzuei pasatzen zaiena eta beste pertsona batzuei (gizarteari) laguntzeko beharra sentitzen dute, pasatu zituztenen antzeko egoera gehiago gerta ez daitezen. Egungo kirol-kultura eraldatu nahi dute.

#### **6.4. KIROL-TESTUINGURUAN SEXU-INDARKERIAKO EGOERAK SAIHESTEKO GOMENDIOAK**

- 1) Zenbait biktima bat datoz esatean nortasunak, autoestimua arazoen edo taldean erabat integratuta ez egoteak indarkeria mota horren biktima izatera eraman dezaketela.
- 2) Parte-hartzaileek honako jarduketak hauek gomendatzen dituzte prebentziorako eta sentsibilizaziorako:
  - a. Kirol-testuingurutik kanpo entrenatzaileekin zenbait harreman saihestea. Adibidez, hauek aipatu dituzte: entrenatzailearen etxera joan, entrenatzailearekin autoan joan, zerbait hartzera joan edo sare sozialetatik hitz egin.
  - b. Klubei eta federazioei ez ezik, teknikariei eta kirolariei ere hitzaldiak eta prestakuntza ematea, besteak beste, jokabide desegokiak identifikatzeko eta horiek gertatzen badira nola jakinarazi jakiteko.

- c. Taldekide guztiak zaintzea. Taldekide izanik, taldearen barruan gutxiago integratuta egon daitezkeenei adi egotea.



## 7. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aldaz, J. (2020). Cuando el sueño de ser deportista de élite se puede convertir en pesadilla. Análisis crítico de las violencias en torno a los menores deportistas en itinerarios de alto rendimiento y de los mecanismos existentes para su protección. In Ana Isabel Pérez Machío eta Norberto Javier de la Mata Barranco (zuz.), *La integración social del/la menor víctima a partir de la tutela penal reforzada* (695.-742. or.). Thomson Reuters Aranzadi.
- Azurmendi, A. eta Fontecha, M. (2015). *Kirolean emakumeen aurkako sexu-jazarpena eta abusuak prebenitzeko gida. Protokoloa egiteko jarraibideak*. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
- Ballesteros, B. eta Mata, L. (2017). Jóvenes: bullying y cyberbullying. *Revista de estudios de juventud* 2017 115(1): 9-279. *Revista de Estudios de Juventud*, 115.
- Borumandnia, N., Khadembashi, N. eta Tabatabaei, M. (2020). The prevalence rate of sexual violence worldwide: a trend analysis. *BMC Public Health* 20. <https://doi.org/10.1186/s12889-020-09926-5>
- Brackenridge, C. (1994). Fair Play or Fair Game? Child Sexual Abuse in Sport Organisations. *International Review for the Sociology of Sport*, 29(3), 287-298. <https://doi.org/10.1177/101269029402900304>
- Brackenridge, C. (2002). Spoilsports (understanding and preventing sexual exploitation in sport): *British Journal of Sports Medicine*, 36(4), 311-311. <https://doi.org/10.1136/bjism.36.4.311>
- Brackenridge, C. eta Fasting, K. (2005). The grooming process in sport: Narratives of sexual harassment and abuse. *Auto/biography*, 13(1), 33-52. <https://doi.org/10.1191/0967550705ab016oa>
- Bringer, J. D., Brackenridge, C. H. eta Johnston, L. H. (2002). Defining appropriateness in coach-athlete sexual relationships: The voice of coaches. *Journal of Sexual Aggression*, 8(2), 83-98. <https://doi.org/10.1080/13552600208413341>
- Caballo, V. E., Arias, B., Calderero, M., Salazar, I. C. eta Irurtia, M. J. (2011). Acoso escolar y ansiedad social en niños (I): Análisis de su relación y desarrollo de nuevos instrumentos de evaluación. *Behavioral Psychology/ Psicología Conductual*, 19(3), 591-609.

- Cerezo Ramírez, F. (2009). Bullying: Análisis de la situación en las aulas Españolas TT - Analysing bullying in Spanish schools. *International Journal of Psychology & Psychological Therapy*, 9(3), 383–394.
- Carbaugh, D. eta Plummer, K. (1997). Telling Sexual Stories: Power, Change, and Social Worlds. *Contemporary Sociology*, 26. 740. <https://doi.org/10.2307/2654655>
- Fasting, K. eta Sand, T. S. (2015). Narratives of sexual harassment experiences in sport. *Qualitative Research in Sport, Exercise and Health*, 7(5), 573-588. <https://doi.org/10.1080/2159676X.2015.1008028>
- Fernández Villarino, R. (2000). Acoso sexual en el trabajo. *Revista Científica, FCV-LUZ*, III(173).
- Gojanovic, B., Albertin, K., Bizzini, M., Clenin, G., Flueck, J. L., Mathieu, N., Reber, S. eta Scherler, V. (2021). Health4Sport: 13 safeguarding principles so that young athletes can thrive in multidisciplinary sporting environments. *British Journal of Sports Medicine*, 55(17), 952-953. <https://doi.org/10.1136/bjsports-2021-104699>Jones.
- Greaves, L. eta Kirby, S. (2000). *Dome of Silence: sexual harassment and abuse in sport*.
- Hartill, M. (2009). The sexual abuse of boys in organized male sports. *Men and Masculinities*, 12(2), 225-249. <https://doi.org/10.1177/1097184X07313361>
- Hartill, M. (2014). Exploring narratives of boyhood sexual subjection in male-sport. *Sociology of Sport Journal*, 31(1), 23-43. <https://doi.org/10.1123/ssj.2012-0216>
- Hartill, M., Rulofs, B., Lang, M., Vertommen, T., Allroggen, M. eta Cirera, E. (2021). *Child Abuse in Sport - European Statistics (CASES): European and UK reports*. Edge Hill University. Collection. <https://doi.org/10.25416/edgehill.c.5736437.v4>
- Helen O. eta Andrew C. S. (2017) Sexual abuse and the grooming process in sport: Learning from Bella's story. *Sport, Education and Society*, 22(6), 732-743. <https://doi.org/10.1080/13573322.2015.1063484>
- Holloway, I. eta Freshwater, D. (2007). *Narrative research in nursing*. Blackwell Publishing. <https://doi.org/10.1002/9781444316513>
- Kim, S., Connaughton, D. eta Hedlund, D. (2023). Youth Sport Coaches' Perceptions of Sexually Inappropriate Behaviors and Intimate Coach-Athlete Relationships. *Journal of child sexual abuse*, 32(4), 397-417. <https://doi.org/10.1080/10538712.2023.2193179>
- Kirby, S., Greaves, L. eta Hankinsky, O. (2000). *The dome of silence: Sexual harassment and abuse in sport*. Zed Books.



- Lang, M. eta Hartill, M. (2018). Official reports of child protection and safeguarding concerns in sport and leisure settings: An analysis of English local authority data. *Leisure Studies*, 37. <https://doi.org/10.1080/02614367.2018.1497076>
- Leahy, T., Pretty, G. eta Tenenbaum, G. (2002). Prevalence of sexual abuse in organised competitive sport in Australia. *Journal of Sexual Aggression*, 8, 16-36. <https://doi.org/10.1080/13552600208413337>
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa (EGBELO, BOE, 2007, 12. or.)
- Mountjoy, M. eta Verhagen, E. (2022). '#BeTheChange': the responsibility of sports medicine in protecting athletes from harassment and abuse in sport. *BMJ open sport & exercise medicine*, 8(1), e001303. <https://doi.org/10.1136/bmjsem-2021-001303>
- Murphy-Oikonen J., McQueen K., Miller A., Chambers L. eta Hiebert A. (2022). Unfounded Sexual Assault. Women's Experiences of Not Being Believed by the Police. *Journal of Interpersonal Violence*, 37, 11-12. <https://doi.org/10.1177/0886260520978190>
- Olweus, D. (1996). Bullying at School: Knowledge Base and an Effective Intervention Programa. *Annals of the New York Academy of Sciences*, 794: 265-276
- Osasunaren Mundu Erakundea (2002). *Indarkeriari eta osasunari buruzko mundu mailako txostena*. LABURPENA. 2020ko ekainaren 27an berreskuratu zen hemendik: [http://www.who.int/violence\\_injury\\_prevention/violence/world\\_report/es/summary\\_es.pdf](http://www.who.int/violence_injury_prevention/violence/world_report/es/summary_es.pdf).
- Owton, H. eta Sparkes A. (2015). Sexual Abuse and the Grooming Process in Sport: Learning from Bella's Story. *Sport, Education and Society*, 1-12. <https://doi.org/10.1007/978-3-319-46795-5>
- Platero Méndez, R. (2007). *Herramientas para combatir el bullying homofóbico*.
- Rhind, D., McDermott, J., Lambert, E. eta Koleva, I. (2014). A Review of Safeguarding Cases in Sport. *Child Abuse Review*, 24. <https://doi.org/10.1002/car.2306>
- Sarwar N. (2022). Factors influencing sexual harassment behavior in sports environment: Evidence from Pakistan. *Frontiers in Psychology*, 13, 837078. <https://doi.org/10.3389/fpsyg.2022.837078>
- Sjoberg, L. (2011). Gender, the State, and War Redux: Feminist International Relations across the 'Levels of Analysis'. *International Relations*, 25(1), 108-134. <https://doi.org/10.1177/0047117810396990>

Sullivan, K., Cleary, M. eta Sullivan, G. (2005). *Bullying En La Enseñanza Secundaria*. Bartzelona: Ceac.

Suecia, A. L., Médica, C., Canadá, M. M., Brackenridge, C., Unido, R., Ciencias, D. eta Canadá, S. K. (2008). Acoso y abuso sexuales en el deporte. *Apunts Educació Física i Esports*, 158, 88–93.

Genero Berdintasunaren Unitatea (2016). *Guía de prevención y detección de acoso sexual, acoso sexista y acoso por orientación sexual e identidad o expresión de género*. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.